

Xota gorenean utzita esan nahi du agur

Roberto Martilek igandeko play-offetan Anaitasuna betetzeko deia egin die zaleei / 18-19



XOTA



**Elkar mugituz
euskaraz egiten
segitzeko mezua utzi
du Euskaraldi bukatu
berriak** / 12-13

**Menopausia eta
perimenopausia
oinarri izanen dira
Mank-ek antolatutako
tailerretan** / 2-3

**Langabezian dauden
Sunsundeguiko 320
langileei eman
beharreko pausoak
azaldu dizkiete** / 6

**Irurtzuni eta
Iturmendiri suteen
kontrako plana
homologatu die
gobernuak** / 10

SINADURAK



AUTOPISTA
ELEKTRIKORIK
EZI / 4



JUAN CARLOS
LÓPEZ
-MUGARTZA / 4



ALTSASUKO
LIBURUTEGI
PUBLIKOA / 22

**Altsasuk eta Arbizuk
maila autonomikoko
denboraldi itzela itxi
dute; ligan eta kopan
onenak dira** / 17

**Hiriberrin sortutako
Hartzak Zeruan "rock
PowerDuo" taldeak
'Bidean' lehen EPA
kaleratu du** / 23



**Joanes Bakaikoak B
Serietako Buruz
Buruko txapela
irabazi du, bitrinako
seigarrena** / 15

Eneida C. M. eta E. R. B. SAKANA

Menopausia eta perimenopausia oinarri hartuta, Sakanako Mankomunitateko Kirol eta Jarduera Fisiko zerbitzuak eta Berdintasun zerbitzuak Elikadura eta ariketa fisikoa menopausian jardunaldiak antolatu dituzte, Arbizuko eskola zahar berrituan ekainaren 13an eta 20an, ostiralak, 17:00etan, eta Urdiainen udazkenean. Lehenengo tailerra *Menopausia eta perimenopausia: aldaketak eta beharrak* izanen da eta bigarrena *Asteroko menuaren antolakuntza eta planifikazioa*; udazkenean parte hartzaileek praktikan jarriko dute *Sukaldean Behin: elikadura praktika jartzen* tailerrean. Aitziber Aizpuru Bereziartua Eliku Nutrizio Aholkularitza zentroko adituak emanen ditu tailer-hitzaldiak, eta "emakumeen etapa berri honetarako" aholkuak ez ezik, garrantzitsuena "laguntza ematea eta sare bat osatzea" izanen dela esan du. kirolak@sakana-mank.eus edo berdintasuna@sakana-mank.eus helbidetan eman daiteke izena.

Nutrizionista baino zerbait gehiago zara, sareetan ikus daitekeen bezala.

Nire lana ez da soilik nutrizioari buruz hitz egitea, baizik ea emakumeekin bidea egitea. Ulermenetik, errepestutik eta aldaketa txikiek duten indarra aitorturik. Menopausia ez da amaiera edo izkutuan gordetzeko zerbait; gorputza entzun eta zaintzen ikasteko aukera da, eta elkarrekin egiteko, ez bakarrik. Zuk aldatu, horixe da, eta horixe esaten dut: zuk alda dezakezu, zuk duzu giltza.

Nola eta noiz hasi zinen elikaduraz arduratzen?

Nutrizio ikasketak kasualitatez egin nituen. Ez zen nire bokazioa, egia esan. Baina garaia zen. Nafarroako Unibertsitatean estatu mailan lehenengo aldiz jarri zituzten ikasketak, eta berria zenez nire zerrendan jarri nuen. Ez nekien oso ondo zer ikasi, eta nutrizioa jarri nuen. Pixka bat pentsatu nuen: "Zer da hau?". Zerrendaren azkenengo postue-

"Menopausia gorputza entzuteko aukera bat da"

AITZIBER AIZPURI BEREZIARTUA NUTRIZIONISTA

Elikadura eta ariketa fisikoa menopausian ikastaroak emanen ditu ekainaren 13an eta 20an, Arbizun, Sakanako Mankomunitateak antolatuta



Aitziber Aizpuru nutrizionista. ELIKU ZENTROA

tan jarri nuen. Garai hartan kanpoan egon nintzen, eta amak esan zidan etxera gutuna iritsi zela eta Iruñean hartu nindutela. Bada, listo. Eta hementxe nago. Egia da nutrizio ikasketak ez zitzaizkidala batere gustatu. Bukatu nuenean kontsulta irekitzea pentsatu nuen, eta ordutik aurrera gustatu zitzaidan. Jendearekin hitz egitea gustatzen zait. Azkenean, prozesu bat izan da. Lehenengo ikasketak izan ziren, gero elikadura eta kirola, elikadura eta haurdunaldia, elikadura eta haurrak, elikadura eta edoskitzea... Nire bizitzaren prozesuarekin batera eraman dut, menopausiaren prozesura iritsi arte. 29 urte daramatzat Elikun lanean.

Azken aldian menopausia eta perimenopausiari buruz gehiago entzuten ari da? Sentsazioa izan da hainbat prozesu ezkutaturik izan direla, eta orain?

Aspaldi menopausia gaia tabu bat izan da; emakumeen bizitzaren etapa bat ezkutuan mantendu dena. Maiz umore txarreko, ahuldu, ezengonkor bezala esteotipatu da. Horrek emakume asko isolatu eta informazio faltan utzi ditu, euren gorputzaren eta emozioen inguruko galderak eta kezak ezin jakin. Azken urte hauetan feminismoaren eta osasunaren normalizazioaren mugimenduak sustatuta bultzada handia eman diote menopausiari buruz hitz egiteko, eta gero eta gehiago ulertzen da etapa hau; ez dela amaiera, baizik eta emakumeen bizitzaren aldaketa eta potentzia berriak dakartzala ere. Zientziak aurrerapausoak eman ditu hormona aldaketaren inguruan eta menopausiaren aldaketen ondorioetan, eta horrek lagundu du baliabide eta tratamendu hobeak garatzen, baita prebentzio eta bizi kalitatea hobekuntza sustatzen ere. Gaur egun egia da hitzaldi, liburu eta menopausiari begirada integrala eskaintzen diotela; emozionala, soziala eta azkenean emakumei ahalduntze handiagoa ematen dio. Euren bizitza eta osasunaren gainean erabakiak



**TALLERES
GOÑI
TAILERRAK**



AKABORRO II INDUSTRIALDEA • IRURTZUN

- Ibilgailu guztien txapa konponketa eta margoketa
- Errotulazioak
- Jaso eta etxera eramateko zerbitzua



680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com

hartu eta aktiboki parte hartze-ko. Laburbilduz, lehengo isiltasuna eta tabuen orde, orain informazioa, elkarrikteta eta laguntza sareak daude. Hori da aldaketa handienetako bat. Emakumeek eurek beharrei erantzuten eta erantzun diezaiokeen.

Norbanakoei ematen diozun lana ez ezik, tailerrak, hitzaldiak eta abar antolatzen dituzu.

Nire lana ez da bakarrik kontsulta puntualak egitea, elikadura planak ematea... Gaur egun lan honek eskatzen du ikuspegi zabalagoa eta errealistagoa. Horregatik sare sozialak erabiltzen ditut bertatik, egunero, aholkuak, errezetak eta informazio osasungarria zabaltzeko. Horrela, emakume eta publiko orokorrari nutrizioa eta menopausia inguruko beste kontzientzia eta informazioa ematen zaio. Horrek azkenean laguntzen du kultura osasuntsua hedatzen, bakoitzaren egunerokotasunean, etxean eta bizimoduan. Bestalde, tailerrak antolatzen ditut non praktikan jartzen diren elkarbanatutako elikadura ohitura hauek; sukaldean esperientzia zuzena izateko aukera emanaz. Tailer hauek ez dira bakarrik prestakuntza teknikoa, baizik eta estazioak dira, non galderak egin, zalantzak argitu, elkarrekin ikasteko eta komunitatea sortzeko balio duten. Gainera, lan honetan sartzen dira ere aholkularitza pertsonalizatua, non emakume bakoitzaren tesuinguru fisikoa, emozionala eta soziala kontuan hartzen ditudan. Osasuna modu integralean kudeatzea. Nire jarduera anitza eta dinamikoa da, eta helburua emakumeak euren bizitza hobetu, ulertu eta kudeatzea da. Ez bakarrik nutrizioaren kontuan, baizik eta bizi kalitate eta ongizatea sustatzeko.

IKASTAROAK
'Menopausia eta perimenopausia: aldaketak eta beharrak' izanen da lehenengo tailerra, ekainaren 13an. Nolakoa izango da?

Menopausia prozesuaren aldaketa fisiko, hormonal eta emozionalak aztertuko ditugu. Helburua da emakumeak etapa hau hobeto ulertzea eta bere beharrak identifikatzea. Informazio zientifikoa jasotzeaz gain, parte hartzaileek esperientzia partekatze-ko eta galderak egiteko aukera izango dute. Tailerra teorikoa izango da, eta parte hartzaileei elikadura eta bizimodu osasun-



Menuak planifikatzen eta errezetak egiten laguntzen du Aitziber Aizpuruk. ALIKU ZENTROA

"LEHENGO ISILTASUNA ETA TABUAREN ORDEZ, ORAIN INFORMAZIOA ETA LAGUNTZA DAGO"

tsurako adibide praktikoekin emakume bakoitza etapa hau modu positiboan kudeatzeko urratsak emango zaizkie.

Bigarren saioa, ekainaren 20an, 'Astero menuaren antolakuntza eta planifikazioa' izango da.

"SARE SOZIALETAKO LANA, KULTURA OSASUNTSUAK HEDATZEN LAGUNTZEN DU"

Egunerokotasuneko bizitzaren erritmoan oinarritutako menu osasuntsuak eta erraz planifikatzekoak landuko ditugu, eta, batez ere, menopausian dauden emakumeek behar dituzten behar nutrizionalak kontuan hartuta. Azkenean, planifikazioak eta menuak antolatzeak denbora aurrezten laguntzen du eta, gainera, elikadura orekatua bermatzen du: barazkiak, fruta, proteina, zerealak eta abar modu egokian tartekatuz. Tailer praktikoko eta parte hartzaile honetan, planifikazio tresnak, menu ereduak eta erabilgarriak landuko ditugu, gustuak ere kontuan hartuz.

Udazkenean sukalderaino sartuko zarete, ezta?

Tailerraren izenak dioen bezala, *Sukaldean Behin: elikadura praktikan jartzen*, sukaldean egiteko hamar edo hamabi errezeta prestatzeko aukera emango dugu; baita planifikatzeko eta errezeta horiek modu eraginkorrean egiteko tresnak ere emango ditugu.

Modu orokor batean, zein aholku da ezinbestekoa menopausia eta perimenopausian?

Elikaduran bi hitz erabiltzen dira: kontestua eta baldintzak. Baina oso orokorrean, egunean bitan barazkiak eta bi edo hiru fruta jatea gomendatzen da, eta proteina iturri osasungarriak ere garrantzitsuak dira: leka-leak, arrautza, arraina... Eta ariketa fisikoa egitea ere ezinbestekoa da. Negoziaezina. Mugimendu aerobikoa eta indar ariketak astean hiru edo bost aldiz.

Zergatik parte hartu behar dute emakumeek tailer hauetan?

Lehenik eta behin emakumeendako pentsatuak eta sortuak dira. Entzunak eta ulertuak izateko, eta gorputzean gertatzen ari zaizkien aldaketak begirunez eta jakintzaz begiratzeko espazio seguruak izango dira. Ez dira tailer teoriko soilak eta moralizatzaileak; bizitzaren errealitatean erabil daitezkeen tresnak emango zaizkie, elikadura osasuntsuaren oinarriak, sukaldeko antolaketa errazteko aholkuak, erosketak nola planifikatu eta nola moldatu egoera eta gorputz berrira ulertzeak gakoak. Batez ere bakarrik ez zaudela ikusteko aukera izango da, beste emakumeekin partekatze, barre egiteko, galderak egiteko eta laguntza sare txiki bat osatzeko; sare txiki baina sendo bat.



ASTEKOA

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Euskara hiltzen ari zen, ustez, axola ez zitzaigulako

1966ko otsailean *Príncipe de Viana* aldizkariaren euskal eranskinaren lehenengo alea argitaratu zen. Lehenengo orrian, euskaraz eta erdaraz, "España'ko berriak" aipatzen ziren, eta beste atal batean, erdara hutsez, *Roncesvalles* aldizkaria aurkeztzen zuten.

Nafarroan euskara hiltzen ari zela zioten, mendez mende atzera eginez, gelditu gabe, bizirik egotea benetako miraria izanik, askoz ere gehiago kontuan harturik euskara "hizkuntza ezgauza" zela, "bizitza literario distiratsurik gabekoa". Euskara hiltzen ari zen, eta ez zitzaigun axola. Halere, euskara oraindik salba zitekeen, baldin eta benetan maitasun garbiz, azpijokorik edo nahasketarik gabe, maitatzen bagenuen. Halaxe jokatu behar zuten aldizkarian.

Sakanako herri eta leku asko aipatzen ziren lehenengo zenbaki hartan, horien artean, Etxarri Aranatz. Zutabegileak zioenez, Etxarrikoek *Ama begira zazu* kantatzen zutenean parekorik ez zuten. Erreferente handia zen Sakana osoan.

NAFARROAN EUSKARA HILTZEN ARI ZELA ZIOTEN, MENDEZ MENDE ATZERA EGINEZ, GELDITU GABE

Halere, euskara kontuetan ez zen lehengo bera, pipia sortu zitzaiola zirudien, eta Etxarriko pipi horrek imitazioz Sakana osoa jan zezakeen. Begi onez ikusten zen igandeetan hasi zela meza euskaraz ematen, baina ez zen aski. Urte haiek,

jakina, ez ziren hoberenak aztertzeke zer dela eta euskara hain ahul zegoen. *Príncipe de Viana* aldizkariak gerra garaian Altsasuko apaiza izan zenarekin hitz egin ahal izan balute, On Marino Aierrak nahikoa arrazoi emango lieke ulertzeke euskara ez zegoela ahul axola ez zitzaigulako, gerra egin eta irabazi zutenek euskaraz aritzeko beldurra (benetako pipia) hedatu zutelako baizik.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak astearte 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Eta argia izan zen

AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZ!

Apirilaren 28an, gure arabar auzokideak barraskiloak jaten ari zirela, argia itzali zen, edo hobeto esanda, potentzia elektriko kableetatik desagertu zen. Energia burbuilaren funanbulistik ez, ezta buitre funts berriztagarrien akrobatarik ere ez, ez ziren agertu zirkuaren sarreraren prezioa itzultzeko, guztiok ikusle pasibo gisa parte hartzen dugun zirku honetan.

Komunikabide deskomunikatzaileen bertsio interesatuak alde batera utzita, energiaren eskaintza eskaria baino askoz handiagoa zenean, elektrizitatearen prezioa zeroan zegoenean edo negatiboan kotizatzen zutenean, itzalaldiaren azalpena ez litzateke bilatu

behar ez produkzio ez garraio azpiegituren gabeziatan, baizik eta haien kudeatzaile ezgaiek diru goseagatik egindako inplementazio akatsetan.

Itzalaldiaren itzalean, sektore oinarritzko bat (elektrikoa, garraio sareak barne) pribatizatu zuten kudeatzaile berberak, haien erantzukizuna onartu beharrean, aurrerako jauzi bat proposatzen dute, hutsunerako jauzi bat. Goi tentsioko linea gehiago, azpiestazio elektriko gehiago, metalak zapaldutako lur emankor gehiago, kalbario bilakututako mendi gehiago. Laburbilduz, inbertsio publiko gehiago azpiegitura pribatuak ordaintzeko.

Akrobata hauen jauziak argiztatzen duten foku mediatikoek ez gaitzatela

itsutu errealtatea zein den ikusteko, beraien mezua, faltsua eta suizida delako. Kable gehiegi daude, egonkorgailuak falta dira, espekulatzaile gehiegi daude, energia produkzioa eta garraioa nazionalizatzeko apustua egiten duten politikariak falta dira. Zirku amaitu dadila, mila aldiz errepikatutako gezurra ez dadila egia bihurtu.

Deskarbonizazioaren apostolu autoizendatuek, etorkizunaz hitz egitean, hilotz bat ahoan dutela ari dira. Gure herrien hilotza, gure paisaia, gure identitatea, Red Elctrica edo Forestaliako dorreen zementuaren azpian lurperatuta, tentsio handiko kableek elektrokutatutako izarren zerupean.

HIZKETAN

Entzun GUAIXE IRRATIko elkarrizketa guztiak
guaixe.eus/irratia/hizketan

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearna Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Europako espiritualtasun eta ondare sarea

Aralarko San Migel santutegia kontinenteko "epizentro espiritual eta kultural" bihurtu zen bi egunez, San Migelgo Santutegien eta Bideen Europako Sarearen Urteroko Topaketarekin

UHARTE ARAKIL

Europako San Migel Santutegien eta Bideen Europako Sarearen urteko topaketa hartu zuten Aralarko santutegiak eta Zamartzek asteburuan. Urtero antolatzen den topaketa horren bidez sareari ikusgarritasuna eman nahi diote. Aldi berean, bere kideen arteko loturak sendotu nahi dituzte mugaz gaindiko lankidetzak bulkatzeko. Horrekin batera, esperientziak partekatu eta Goiaingueruaren legatuaren inguruko ibilbide komuna egiten jarraitzeko bulkada eman nahi dute. Aralarko Deun Mikel Goiaingueruaren Kofradia eta Aralarko santutegia izan ziren anfitrioiak. Sarea bederatzi santutegik eta 20 erakunde publiko eta pribatuk osatzen dute. Topaketan Auvernia, Normandia, Italia, Ipar Katalunia eta Nafarroako ordezkariak bat egin zuten. Bi egunez Aralar elkarrizketa foro bihurtu zen eskualdeko eta tokiko agintarien, erlijio ordezkarien eta aipatutako eskualdeetako tokiko arte, historia, turismo eta kultur arloetako espezialisten artean.

Topaketaren aurreneko eguna sarearen batzarra Lakuntzetxan egiteko baliatu zuten. Guztiei ongi etorria Migel Angel Zubiriak, kofradiako lehendakariordeak, (Jose Mari Ustarroz kofradiako presidentek ezin izan zuen egon) eta Alfonso Garziandiak, santutegiko kaperauak, egin zieten. Ondoren, David Nicolas sareko presidente eta Mont Saint Michel barrutia hartzen duen Avranche-seko alkateak azpimarratu zuen, alde batetik "ordezkatzeko dugunaren Europako dimentsioa". Beste aldetik, "gure balio komunak, herrien arteko ulermenak sustatzen dituena". Azkenik, "planeta mailan partekatutako espazio baten protagonista izatearen harrotasuna". Turismo iraunkorraren gorakada eta bisitariari bere buruarekin elkaritzeko esperientzia bat eskain-



Topaketa parte hartzaileei eskainitako aurrreskuarekin despiditu zen. UTZITAKOA

"ORDEZKATZEN DUGUNAREN EUROPAR DIMENTSIOA" AZPIMARRATU ZUEN PRESIDENTEAK

tearen garrantzia ere nabarmentu zituen. Sarea bulkatu duen funtsezko pertsonetako bat Mikel Garziandia Goñi Palentziako gotzain eta Aralarko kapilau ohiak ere hitza hartu zuen. Garziandiak esan zuenez, Itxaropenaren Jubileua 2025 proiektuak "sarearen dimentsio espiritualak bulkatzen du". Azaldu zuenez, "San Migeli eskainitako santutegiak Europako katedral, monasterio eta parrokiekin lotuz, erromesaldiaren bidez eliz komunioko esperientzia baterako bide sare bat egiten da". Ondoren, bertaratuek Aralarko erretaulari buruzko hitzaldia eman zien Lourdes San Josek eta ondoren santutegia eta bere inguruak bisitatzeko aukera izan zuten. Parte hartzaileek aukera baliatu zuten ondareari balioa emateko dituzten ekimenen berri elkarri emateko.

Zamartzen

Bigarren egunean Zamartze izan zen bilgunea. Normandia eta Auvernia elkarteetako eta Aralarko kofradiako ordezkariak Europar proiektuak duten beraien ekimenak errepasatu zituzten. Ipar Kataluniako Saint Michel de elkarrekin egindako lan berri-zailea aurkeztu zuen: jatorrizko piezak New Yorkeko The Cloisters-en dituen arku erromanikoa 3Dn birsortzen dute, elementu horiek sinbolikoki abadiako jatorrizko lekura bueltatzeko. Topaketa dimentsioa du Mont Saint Micheleko Bideen Sareak. 4.000 km baino gehiagoko ibilbideak dira, antzinako erromes bideak berreskuratzen dituztenak eta turismo motela eta deskarbonizatua sustatzen dutenak, oinez edo bizikletaz, espiritualtasuna, ondarea eta ingurunearekiko errespetua integratuz. Bestalde, Zubiriak adierazi zuenez, "Aralarko Deun Mikel Goiaingueruaren kofradia nortasun espiritual sendoagatik nabarmentzen da, bere ekintza mugatu beharrean aberastu egiten duelako". Gaineratu zuenez, "kolore eta tonalitate desberdineko Europa bat gara, elkartasunean, anaitasu-

nean eta tolerantzia partekatzen ditugun balioek elkartuta".

Akabera ekitaldian Nicolasek San Migel Europako lankidetzaren ikur gisa aldarrikatu zuen. "San Migelek Europako balioak ordezkatzeko ditu, gaur egungo testuinguruan hain beharrezkoak direnak, hala nola gaizkiaren kontrako borroka, bakea eta adiskidetzak". Aldi berean, aliantza hori osatzen duten eragileen aniztasuna eta lankidetzak pluralaren balioa azpimarratu zituen.

Bukatzeko, Unai Hualde Igle-siasek, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak, esan zuenez, topaketak "indarrak batzeko eta San Migelen Europako ibilbidea sendotzeko balio behar du, haren interes espiritualak agerikoa da baita, nahiz eta kultura, turismo, gizarte eta ekonomian ere baduen". Sareak Europar duen garrantzia handitzen jarraitzea espero du Hualdek: "elkarrekin lan egiten jarraitu behar dugu loturak eta entente sendo bat eraikitzeko, eskualde bakoitzaren berezitasunetik abiatuta indartsuagoak izaten lagunduko diguna".

Hualdek Ustarroz buru duen kofradiaren interesa eta lankidetzak eskertu zituen, baita Mikel Garziandiaren prestasuna ere. "Nafarroa eta Sakana Europara begira jartzen dituen asmo handiko proiektua gauzatzeko ahalgina" egin dutelako. "Aralarko santutegia gure nortasunaren parte da, gaur egun Europari aurrez aurre begiratzen diona, bere egoera sozial, ekonomiko eta politikoa erreferente oso bat den Nafarroa baten baitan". Euroeskualea, Pirinioetako Lan Elkarrekin eta hainbat foro sustatu dituztela gogorarazi zuen.



EKAINAK 2-6

- 10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta
- 10:15 Prentsaren azalak
- 10:20 Albisteak eta kirolak
- 10:30 Hizketan
- 11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin
- 14:00 Errepikapena

Hizketan

- Ekainak 2 Roberto Martil
- Ekainak 3 Hitanoa Arbizon
- Ekainak 4 Bertso saioa (Bertsoa.eus)
- Ekainak 5 Joanes Bakaikoa eta Hartzak zeruan taldea
- Maiatzak 30 Agenda berezia





Hiru langile ohi hutsik dagoen lantegira begira. ARTXIBOA

Sunsundeguiko 320 dagoeneko langabeak dira

Kaleratuei argibideak emateko, Nafar Lansare eta SEPEkoak enpresa batzordearekin bildu ziren

ALTSASU

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko, Nafar Lansare, eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko, SEPE, ordezkariak eta Sunsundeguiko enpresa batzordea Altsasuko enplegu bulegoan bildu ziren astelehenean. Bi erakundeek kaleratutako langileei erraztasunak eman nahi zizkietela adierazi zuten. Hala, Sunsundeguiko langile ohiek eman beharreko pausoei buruzko informazioa jaso dute.

Aurten sortutako 12 opor egunak maiatzaren 28an, asteazkenean, bukatu zitzaizkien Sunsundeguiko langileei. Ordutik langabezia daude. Langabezia prestazioa eskuratzeko bi tramite egin beharko dituzte, bata Nafar Lansaren eta bestea SEPEn. Bi erakundeek Altsasuko Enplegu Bulegoan dute egoitza. Nafar Lansaren enplegu eskatzaile gisa izena eman beharko dute eta Jarduera Akordioa sinatu beharko dute. Horretarako, hitzordua eskatu beharko dute. SEPEn, berriz, prestazio edo dirulaguntza eskaera aurkeztu beharko dute. Sunsundeguiko langile ohiek gaur egun 320 direnez, SEPEk ezohiko erabakia hartu du: garagarriaren 9an, 10ean eta 11n bakar-bakarrik pertsona horiek aurretik dituzdurik eskatu beharko. Eskaera orria bete eta dagokion dokumentazioa aurkezterakoan SEPEko langileek datuak ongi daudela ziurtatu eta oinarritzko informazioa besterik ez dute emanen. Informazio per-

sonalizatuagoa eta zehatzagoa nahi dutenek Nafarroako Prestazio Bulegoetara jo beharko dute.

Jakina, Sunsundeguin lan egin zuten baina Sakana edo Nafarroatik kanpo bizi ez diren langile ohiek dagokien enplegu bulegora jo beharko dute. Haiek bai, txanda eskatu beharko dute.

Bi bide

Nafar Lasare eta SEPEko ordezkariak Sunsundeguiko enpresa batzordeko kideei adierazi zieten bi bide jorratuko dituztela. Alde batetik, orientazio eta birkokatze plano. Interesa duten langile ohiekin talde bat sortuko lukete eta prestakuntza plana prestatuko liekete. Horretarako, aurrena, eskatzaileen egoeraren azterketa egin eta enplegurako ibilbide pertsonalizatua egingen liokete, tailerrak eskaini. Prestakuntza Altsasun edo Burlatako Iturrondo Prestakuntza Zentroan izan daitezke. Ibilbide horretan laguntza, aholkularitza eta banakako tratua eskainiko litzaiekeela adierazi zieten.

Beste aldetik, bai Nafar Lansareko bai SEPEko ordezkariak esan zuten, Sakanako Enpresen Elkartearekin harremanetan jarriko dira ibarreko enpresek dituzten kontratazio premiak identifikatu eta dokumentatzeko. Horren ondoren enpresekin harremanetan jarriko dira zer kontratazio aukera dauden jakiteko. Eta, azkenik, baleude, lan eskaintza horiek kudeatuko litzukete.

"Lan arriskuen kudeaketan aholkularitza ematen dugu"

JOSE IGNACIO AGUADO MARTIN NOPLOIKO LAN OSASUNeko ZUZENDARIORDEA Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko teknikariak eta osasun langileek informazioa eta aholkularitza eskainiko dituzte Leitzan eta Sakanan

A.A.I. SAKANA

Lan arriskuen prebentzioa bulkatzeko Tafallan hasitako proiektu pilotua Leitzara eta Sakanara zabaldu du Osasun Departamentuak. Egitasmoaren bidez 25 udalerritako 840 enpresa eta 17.500 langilerengana iritsi nahi du departamentuak.

Tafallan lantzen hasi ondoren, zergatik aukeratu dituzue Leitzako eta Sakanako osasun eskualdeak lan arriskuen prebentziorako proiektu pilotua martxan jartzeko?

Tafalla proiektu piloturako aukeratu genuen osasun eta gizarte zerbitzuen arlotan barrutia oso ongi definituta zegoelako. Proiektua egokia dela ikusi dugu, gizarte eragileek, enpresek, langileek, mundu guztiak positibotzat jo duenez, beste eremu batera zabaltzea erabaki dugu. Hainbat barruti eta eskualde aztertu genituen. Guri dauden enpresa motak eta haien aniztasuna interesatzen zaizkigu, institutuak dituen zerbitzu guztiak aritu ahal izateko, eta benetan inguru horretan hobekuntza eraginkorra izan dadin. Leitzaldeak eta Sakanak industria, lehen sektorea, basogintza, nekazaritza eta abar dituztenez, baldintzak betetzen zituzten. Tafallan 20.000 langile inguru ziren. Bi eskualdeetan gutxi gorabehera langile kopuru hori dute, gure tresnak ondo ezarri ahal izateko.

Zertan datza proiektua?

Gertutasunean oinarritzen da. Institutuaren baliabideak hurbildu behar ditugu, ez dute Iruñean egon behar. Gure teknikariak enpresak ezagutu ditzatela, eta enpresek aukera izan dezatela erreferentziazko gune batera galdetzeraz joateko. Hurbiltasun horrek nahitaez hobetu behar du institutuarekiko harremana eta hobetu behar du guk garatzen ditugun tresnen



"INSTITUTUAK AHOHKULARITZA EGITEN DU, ENPRESEK PREBENTZIOA HOBETZEKO"

"ALDE TEKNIKO BAT DUGU, ENPRESEKIN. OSASUN ALDERDIA ERE BADU PROIEKTUAK"

ezarpena. Azken finean, institutuak aholkularitza egiten du, aholkularitza enpresek prebentzioa hobetzeko. Ez gara ikuskatzaileak, aholkulariak gara, laguntzen saiatzen gara eta prebentzio kultura enpresa guztietan sar dadin saiatzen gara.

Institutuko zenbat langilek parte hartuko dute?

Guk kanpaina batzuk ditugu eta horiek ez ditugu mugatzen, Nafarroa osoan egiten ditugu. Proiektua daukagun lekuetan bi teknikari ditugu etengabe, eta eskualde horretan institutuko kanpainak eta tresnak ezartzen dituzte. Institutuko beste lankide batzuk ere joaten dira beste-lako kanpainak egitera. Alde tekniko bat dugu, enpresekin. Osasun alderdia ere badu proiektuak, eskualdeko osasun etxeetako langileei lan arloko gai guztietan laguntzen diena. Horretarako, lan arloko prestakuntza ematen zaie eskualdeko osasun langileei, eta eskualdean egiten diren kontsulta guztiak ikusten ditu.

Egoitzaren bat izanen duzue Sakanan?

Tokiak ikusten ari gara. Esate baterako, Tafallan gizarte zerbitzuaren egoitzan gaude. Halako inguru batean egotea gustatzen zaigu: osasun ingurune batean, esaterako kontsultategi batean, osasun etxe batean edo horrelako erakin instituzional batean, jendeak sarrera erraza izan dezan.



Kaskoa eraikuntza lan batzuetan. ARTXIBOA

Hala ere, oraindik bila gabiltza, ez baita erraza. Jendea joan ahal izateko toki egokiena zein den aztertzen ari gara.

Enpresei zer eskaintzen die proiektu pilotuak?

Gutxi gorabehera Tafallan egin dugunaren ispilua eginen dugu. Hainbat fasetan banatzen dugu. Lehenik eta behin, enpresei proiektuaren berri ematen diegu. Baita alkateei, beraiek inguruan zabal baitezakete institutuaren funtzio berria. Enpresetara joaten gara eta diptiko bat ematen diegu, proiektua zer den eta zer eskaintzen dugun azaltzeko. Beraz, ideia da: prebentzio baliabideen ebaluazioan eta kudeaketan laguntza bat ematea, kultura hori ezar dadin. Enpresari egindako ebaluazioaren arabera arrisku batzuk edo beste batzuk hartzen dira kontuan. Lan arriskuen kudeaketan aholkularitza ematen dugu.

Apika enpresa guztiek ez dute egiteko gaitasunik?

Jakina. Guk, batez ere, enpresa txikietara jotzen dugu. Normalean, 50 edo 25 langile baino gutxiago izaten dituzte, enpresa handiek baliabideak dituztelako. Gu enpresari txikia edo autonomoak laguntzeko gaude, prebentzioaren kudeaketa hori egitea hain zaila izan ez dadin. Prebentzio zerbitzu propioa duten 400 langileko enpresa batean, ez du zentzu handirik gu sartzeak, dagoeneko badutelako jende tek-

nikoa eta kalitatezkoa zerbitzu hori berrikusteko.

Beraz, 840 enpresa horiek bisitatzeko asmoa duzue?

Hori da. Urtero lehentasunezko Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala (EJSN) ateratzen da, haren bidez sektorea eta enpresa mota mugatzen dute. Beti dago ezbehar tasa handiagokoa duenen bat. Horiek urtero argitaratzen ditugu. Lehentasuna ematen diogu eta arlo horiekin hasten gara, ondoren gainontzekoetara zabaltzeko. Beraz, ideia bat egin dezazuen, esaterako, Tafallan 119 enpresa bisitatu ditugu 9 hilabetetan. Hemen dinamika berarekin jarraituko dugu. Kanpaina jakin bat egiten bada eta sektore bateko enpresa guztiak hartu nahi baditugu, Iruñeko teknikariek lagunduko diete.

Badakizue zein sektoretan ematen diren baja gehien, eta zergatik eta nola?

Gauza bat dira lan istripuak eta beste bat aldi baterako ezintasunaren kudeaketa. Bi gauza desberdin dira, baina dena pixka bat kontuan hartzen da. Baina alde teknikoa, batez ere, arriskueta mugatzen da. Azkenean, dena lotuta dago, arriskuek eragiten dituztelako istripuak edo aldi baterako ezintasunak. Enpresa batean patologia baten komunikazioen errepikapena badago, jakina, laguntzera eta gure iritzia ematera joaten saiatzen gara, egoerak horrela jarrai-

ez dezan eta nola hobetu daitekeen ikusteko. Azkenean, guztiaren hasiera arriskua da. Printzipioz ezbehar tasa handieneko sektoretan jarduten dugu.

Beraz, enpresara bisita egin ondoren plana ezartzeko akonpainamendua egiten diozue?

Enpresek beren prebentzio plan-gintza dute, eta guk akonpainamendua egiten dugu. Hitzak oso ongi definitzen du: akonpainamendua. Guk akonpainamendua eta laguntza ematen dugu hori ahalik eta modu eraginkorrean egiteko.

Langileek proiektu pilotuan parte hartzeko aukera izanen dute? Nola?

Jakina. Guk gizarte eragile guztiak hartzen ditugu. Normalean langileak, sindikatuak eta enpresariak etortzen dira. Guztiei laguntzen diegu, akonpainamendua ematen diegu eta aholkuak ematen dizkiegu. Ez daukagu inolako talde mugarik. Langile batek uste badu bere ebaluazioa ez dela ongi egin, edo arriskuan jar dezaketen baldintza batzuk dituela, hori horrela den ikusteko gu laguntzen saiatzen gara. Aholkularitza egiten dugu. Enpresari dokumentazioa eskatzen diogu eta, ondoren, gomendio batzuk ematen ditugu.

Beraz, izanen duzuen egoitzatik edozein langile, enpresa edo sindikatu pasa ahal izango da?

Hori da ideia. Guretako garrantzitsuagoa da jarduera kolektiboak egitea, jende gehiagoren-

gana iristen zarelako. Baina, jakina, asmoa leku finko batean egotea da, eta jendea hara joan ahal izateko eta beraien kezken berri emateko.

Tafallan sindikatuarekin zer harreman izan duzue? Eta zer espero duzue hemen?

Guk sindikatuarekin etengabeko harremanetan gaude. Beraien kezkek jakinarazten dizkigute, eta guk jarduera asko egiten ditugu sektore guztietan. Beraz, komunikazioa ona izatea espero

dugu. Inoiz ez dugu harreman txarrik izan ez sindikatuarekin, ez langileekin, ez enpresaburuekin.

Osasun etxetan enpresetako lan arriskuen prebentzioa lantzeko, zer egingen duzue?

Osasun etxe bakoitzeko prestakuntza arduradunarekin jardunaldi bat hitzartzen dugu. Eta osasun etxeko langileei azalduko diegu zer den institutua, zer egingen dugun eta nola lagun diezaiekegun. Guk egiten dugunaren oinarritzko kontzeptu batzuk ezagutzera ematen dizkiegu, eta gurekin harremanetan jartzeko kontaktua utziko dugu. Adi egon behar dugu kontsultak arin samar erantzuteko eta beraien eguneroko lanean laguntzeko. Esaterako, Tafallan bost osasun etxetatik laura joan gara eta hurrengo hitzartuta dago. Ideia bera dugu hemen.

Noiz ezarriko da proiektu pilotua?

Toki bila gabiltza. Ahalik eta lasterren. Orain egoera aztertzen ari gara, enpresak ezagutzen ditugu, zer motakoak diren, langileak, zer nolako banaketa dagoen. Plangintza aldiarekin gaude. **Proiektuak noiz arte iraunen du?** Tafallakoa proiektu pilotua zen. Erabaki zen Tafallan ekimenak eragina bazuen eta lagungarria bazen, beste eremutara zabalduko zela. Beraz, asmoa da proiektua Nafarroa osoan ezartztea, eta ezarrita dagoen tokian akabera datarik gabe mantendu dadila.

Clara Baraibar

Psikologia

KONTSULTA

611 84 06 80

@

consulta@psicologa-clara.com

www.psicologa-clara.com

Burundabide kalea, 14

Etxarri Aranzatz

KONTAKTUA

A.A.I. ALTSASU

Bi film labur aurkeztu ziren lehiaketara. Publikoak gogokoaren alde botoa emateko aukera izan zuen. Emandako 59 botoetatik %70 *Deseo* film laburraren dako izan zen. Epaimahai profesionalak ere haren alde egin zuen, beraz, 100 euroko bi sari eskuratu zituen.

Sari bikoitza. Zer moduz?

Oso ongi. Parte hartzeagatik egin nuen film laburra. Ez nuen ezer irabazteko asmorik. Erabat harrituta nago.

Publikoak zure lana saritzeak zer esan nahi du zuretzako?

Kuadrillakoekin partekatu nuen eta 10-15 boto lortzea espero nuen, baina hainbeste? Ezin dut sinetsi.

Eta epaimahaiak zurea aukeratzea?

Epaimahai hori kontuan hartuta, saiatu nintzen profesionalen antzera enkoadratzen, editatzen. Nire film laburra kontu esperimental bat da. Proiektuarekin hasi nintzenean, esperimentala goa izatea nahi nuen. Ikusleak ikustean zerbait sentitzea nahi nuen, baina entzumenaren bai ikusmenaren bidez. Zerbait desberdina izatea nahi nuen. Beste film batzuk bezain landua ez dago, baina ni saiatu nintzen soinu eta irudiekin gauza jakin batzuk iradokitzen. Hori nuen buruan, baina zer egin nezakeen? Zeren txapelketaren helburuen artean zeuden azaltzea zure sexualitatea nola partekatzen duzun, nola gozatzen duzun, sexualitatea nola bizi duzun... Normalean, jendeak zuzenean hitz egiten du sexualitateaz edo mundua nolako den. Nik beste modu batera egin behar nuela sentitzen nuen.

Ospatu duzu?

Ez. Nire kamera hautsi da. Kamera pixka bat profesionala da eta konpondu nahi dut. Kamera nirekin dagoenean ospatuko dut.

Zu zeu aktorea zara.

Lana aurkezteko datarekin larri ibili nintzen eta, antzezlerik ez nuenez, "ni neu zergatik ez?" pentsatu nuen.

Aurrera egin zenuen.

Bai. Baina bi lagunak lagunduko zidatela esan zidaten, eta arratsalde batean kanpoko irudi guztiak grabatu genuen. Etxe barruko irudi batzuk ere badau. Zeren, bat-batean, film laburra egiteko eta aurkezteko denborarik ez neukan. Irudi guztiak lotzeko ere pentsatu behar. Jendeak desirak dituela pentsatu nuen, ugariak direla desirak.

"Desira batzuk hartu eta errealitate bihurtu nahi ditugu"

SANTIAGO RUIZ LONDOÑO GOZAMETRAIA LEHIAKETAN SARITUA

Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatutako 'Gozametraia' film laburren lehiaketan bi sari eskuratu zituen, publikoarena eta epaimahaiarena



Santiago Ruiz Londoño sarietako bat eskutan duela.

Hori islatzen saiatu nintzen. Eta irudiak modu horretan lotzea otu zitzaidan.

Irudiekin batera, bost esaldi daude.

Esaldi bakoitzaren ondoren datorrena haren errepresentazioa izan nahi du. Izenburuaren azpian dauden bost asteriskoak desira bakoitzari egiten dio erreferentzia, eta bost esaldi daude. Lehen da desira abisatu gabe jaiotzen den zerbait da (film laburrean gaztelaniaz). Lagunekin nengoe la sortutako esaldia da hori. Hasiera batean desiraren inguruko beste ideia batzuk neuzkan, eta lagunei kontatu nizkien. "Normalean desirak bakarrik etortzen dira", esan zuten. Eta niretako hartu nuen. Nork berea egiten du. Desirak motibatzen zaitu lortu nahi edo ahal duzuna lortzeko.

Beste esaldi bat: partekatzea da existitzeko modurik zintzoena.

Lagunen laguntza ere izan nuen, filmatutako planoengatik eta egin genuen guztiagatik. Sexualitate, handik eta hemendik hartu beharra zuen lanak. Guztiak puntu berera joatea nahi nuen. Epaimahaiak uler zezan, azken batean, desira dela sexua,

"IKUSLEAK IKUSTEAN ZERBAIT SENTITZEA NAHI NUEN, BAINA ENTZUMENAREN BAI IKUSMENAREN BIDEZ"

partekatzea, gozatzea, ederki pasatzea...

lhes egitea ez da amore ematea, norbera bilatzea baizik. Esaldiaz zer esan dezakezu.

(apunteak begiratu ditu) Norbera askatzeko desira.

Film laburreko laugarren esaldia da: gozatzea bularra estutzen digun korapiloa askatzeko da.

Lagun batek inspiratu zidan esaldi hori. Rock and roll eta punk kontzertuak izugarri gustatzen zaizkio. Bere bizitza edo arazoan korapiloa askatzeko modua da kontzertuetan gozatzea.

Azken esaldia: desira baten esentzia errealitate bihurtzean datza.

Esaldi hori azkar-azkar egin nuen. Pentsatu nuen normalean desirak ditugula: zerbait lortzea, helburu bat, lorpenak... bizitzan beti badira halako desirak. Zera gertatzen da: desira batzuk etorri eta joan egiten dira. Baina batzuk hartu eta errealitate bihurtu nahi ditugu, nola edo hala, gu geu ahaleginduz, gure onena emanez. Azken esaldi horrekin esan nahi nuen: desiraren bat baduzu, gogor heldu eta saia zaitez gauzatzen. Dela bidaia bat, dela lorpen bat, dela norbaitekin egotea, dela aitona edo maite duzun beste senideren bat besarkatzea, dela... Desira hori gauzatu, ez egon zain. Zeren etorri bezala alde egin dezake, desira gehienekin gertatzen den bezala.

Gustatzen zaizu filmak egitea?

Askok. Arazo bat dut, prokastinatzailea naiz, dena atzeratu egiten dut, gerorako utzi. Gauza zehatz bat egitea asko kostatzen zait. Deabru moduko bat sentitu behar izaten dut: "hau entregatu beharra duzu, orain". Hori sentitzen dudana lanean jartzen naiz. Presioa sentitu behar dut, bestela ezin dut ezer egin. Ez dakit zergatik. Film labur horren kasuan denbora asko pasa zen, eta hilabete falta zenean, "hau, hura eta bestea pentsatu". Buruan nuena grabatzea pixka bat zaila zen, aktorerik ez nuen, pentsatutakoak gauza handiak ziren eta buruan nuena ezin nuen sortu... "Ez dut ezer. Gainera, denbora gutxi dut. Niri buruzko zerbait sortu beharko dut", pentsatzen nuen.

Film laburrak zer ibilbide du?

Intxostiapunta gazte gunearen Youtubeko kanalean dago ikusgai. **Gehiago eginen dituzu?**

Bai, gogoia dut. Beti ideia asko ditut, baina garatzen ez ditut gogoko.

Txapel Azpi elkarteak terraza izanen du

Elkartearen hegoaldeko paretan portxea eraikiko du eta 30 metro karratu inguruko azalera izanen du. Gaur egun espazioak erabilera du eta irintar ugari esertzen dira han dauden aukietan hizketatzera, tragoa hartzera, erretzera edo frontoikoa ikustera

IRAÑETA
Irañetako Udalak Txapel Azpi aisialdi eta gastronomia elkarteari baimena eman dio eraikinarren hegoaldeko paretaren kontra portxea egiteko. Terraza gisa erabiliko den eraikuntzak 29,54 m²-ko azalera izanen du. Portxearen teilatuari bi izei zutabek eutsiko diote. Haien gainean eta elkarteko paretan habe bana jarriko dira eta gainean teilatua, galbanizatutako txapazkoa izanen dena. Euri ura jasotzeko hodiak ere jarriko dizkiote teiladurari. Txapel Azpi elkarteko zuzendaritzaren asmoa da lanak aurrean bertan egitea, lehenbailehen. Enpresa batek eraikiko du portxea.



Portxea eraikiko den elkarteko fatxada. ARTXIBOA

Portxe edo terraza horren helburua da Irañetan dagoen aisialdiko eta gastronomiako elkarte bakarrari leku gehiago ematea eta herriari bizitasun handiagoa ematen saiatzea, bizikidetzan, gizarte kohesioan, parte hartzean, elkartasunean eta udalerriko bizilagunekiko eta bizilagunekiko errespetuan laguntzea. Azken finean, irintarren bizi baldintzak garatzea eta hobetzea.

Baldintzak
Portxea eraikiko den espazioa gaur egun kalea da, parean jolas parkea eta aldamenen frontoia

ditu. Erabilera pribatibo horretarako baimena eman du Irañetako Udalak, baina Txapel Azpi elkarteak hainbat baldintza bete beharko ditu. Espazio hori erabiltzeko epea 99 urtekoa izango da gehienez ere, beti ere, elkarteak jarraitzen badu. Izan ere, Irañetako Udalak, 1974ko martxoaren 29an, osoko bilkuraren erabakiaren bidez, erabaki zuen udalxeari erantsitako lokala Txapel Azpi elkarteari uztea, epe mugagabe baterako, betiere bazkideen kopurua ez bada 25etik jaisten.

Epea despiditzean, aipatutako zoladura eta egindako obra eta instalazio guztiak Irañetako Udalarari itzuliko zaizkio, kontserbazio egoera onean, eta inolako kargarik gabe. Txapel Azpi elkarteak ezin izango dio udalari eskatu egindako obra eta instalazioengatik inolako kopururik ordaintzeko. Azkenik, udalak beretako gorde du emakida mugaguna baino lehen berreskuratze eskubidea, interes publikoko gerora sortutako inguruabarrek hala justifikatzen badute.

Altsasuk hiru lanetarako dirulaguntza eskatuko ditu

Foru administrazioaren Toki Inbertsioen Planera azpiegiturak eguneratzeko lanak aurkeztuko ditu

ALTSASU
Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Toki Inbertsioen Planaren bidez, udalek herrietako azpiegiturretan inbertsioak berritzeko dirulaguntzak banatuko ditu.

Hurrengo planak 2026-2028 aldia hartzen du. Altsasuko Udalak erabaki du deialdi horretara hiru obra egiteko dirulaguntza eskaera aurkeztuko dituela. Alde batetik, Gipuzkoa kaleko sareak eta zo-

ladura berritzea, baita Bakea kaleko tartea ere. Beste alde batetik, Erburua kaleko eta Beheko Benta kaleetako hondakin uren saneamendu sareak berritzeko lanak aurkeztu ditu. Eta, azkenik, udaletxearen eraberritzea. Azken lan horrek milioi bat euro pasako kostua du. Obra finantzatzeko Altsasuko Udalak aurrean 300.000 euroko zuzeneko dirulaguntza jaso du Nafarroako Gobernuaren aurrekontutik, Geroa Bairen zuzenketa bat dela medio.



Gauzak ongi, makinak 2027an bueltatuko lirateke igerilekura. ARTXIBOA

Udalak lau proiektutarako laguntza eskatu dio gobernuari

Jasoz gero, bi udal azpiegiturretan lanak egin eta bi kaletako zoruak berrituko lituzke

IRURTZUN
Irurtzungo Udalak lau proiektu aurkeztu ditu Nafarroako Gobernuak 2026-2028 aldiko Toki Inbertsioen Planean onartuak izateko esperantzarekin. Alde batetik, igerilekuak berritzeko bigarren fasea egin nahiko luke udalak bi urte barru, 2027an. Aurreikusitako lanek 673.220,64 euroko (BEZik gabe) aurrekontua dute. Jakinaenez, Irurtzungo igerileku denboraldia ezohikoa izan zen joan zen urtean. Izan ere, kirol eta aisialdi azpiegitura berritzeko lanen lehen faseko lanak egin ziren eta igerileku sasoia beranduago hasi zen. Igerileku handia, olinpikoa, eraldatu zuten lan haiek 900.000 euroko aurrekontua izan zuten eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza 160.000 eurokoa izan zen.

Igerilekuko bigarren faseaz aparte, Irurtzungo Udalak Inasarena zen bulego eraikineko

teilatua konpontzeko dirulaguntza eskaera ere egin du. Gaur egun eraikina Dinabideren egoitza da, Sakanako Garapen Agentziak kudeatzen duen eraldaketa digitalerako espazioa. Eraikinarren teilatua berritzeko lanaren aurrekontua 188.787,63 eurokoa (BEZik gabe) da.

Bi lan horietarako finantziarazkia eskatzearekin batera, bi kaleetako zoruak berritu nahi lituzke Irurtzungo Udalak. Alde batetik, herria eta Akaborro industrialdea bereizten dituen kaleko zorua berritu nahi du. Lan horretarako 145.048,80 euroko (BEZik gabe) inbertsioa aurreikusi du Irurtzungo Udalak. Eta, bestetik, Erga kalean, autokarabana guneetik aurreneko etxetarrainoko tartean, zorua berritzeko dirulaguntza eskaera ere egin du udalak. Lan horretarako 169.341,76 euro (BEZik gabe) aurrekontua aurreikusi du udalak.



Gosaririk hoberenak Portuko okindegian

PORTUKO

Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

Altsasun industrialdea jartzeko azterketa egingo da

Kapitansoron jarduera ekonomikoen eremu berri bat jartzeko azterketa bultzatu du Industria Departamentuak

ALTSASU

Iparaldeko Autobia (A-1) eta N-1000 errepidearen artean dago Kapitansoro. Gasolindegia eta tailer batzuk eta Erkudengo ermita daude inguruan. Industria Departamentuak hain 500.000 m² inguruko azalera duen industrialde berri bat jartzeko azterketa bultzatu du. Lau hilabetetan honakoak egingen dituzte: esku hartzearen azterketa ekonomikoa, jarduketa eremua mugatzea eta zehaztea, aplikatzekoa den hiritzintza araudia ezartzea eta eskualdean dauden jarduera ekonomikoetarako lurzoruen eskaintza eta eskaria ebaluazioa. Beste eremu batzuk ere hartuko dituzte bere baitan, esate baterako, inguruaren geologia eta geoteknika, ingurumenaren gaineko eraginak, mugikortasuna eta kanpoko eta barruko azpiegiturak.

Jarduera ekonomikoen eremu berria jartzeko proiektuaren bideragarritasun azterketa zuzenduko duen talde teknikoa Industria Departamentuak eta Altsasuko Udalak osatzen dute eta Altsasun bilera egin zuten asteazkenean. Gobernuaren aldetik Enpresa Sustapeneko zu-

zendari nagusi Iñigo Arruti, Nasuvinsa sozietate publikoko Lurzoru Industrialeko zuzendariorde Carlos Chocarro eta MKR ingenieria & arquitectura, SM enpresako Jose Angel Errok parte hartu zuten. Azken horiek laguntza profesionala emango dute azterlan tekniko eta ekonomikoaren jarraibide nagusiak zehaztu eta garatzeko. Udalaren ordezkaria Javier Ollo alkatea eta Geroa Bai hiru zinegotzik eta EH Bilduko batek osatu zuten. Nasuvinsako Chocarrok esan zuenez, "Araba eta Gipuzkoaren arteko enklabe estrategiko horrek oso interesgarria egiten du etorkizunera begira enpresa ehuna erakartzeko".

Gobernutik esan zutenek, bileran "Altsasu eta Sakanako industria suspertzeko mahaiaren barruan kokatzen da, Industria eta Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentua buru dela. Mahai horren estrategiak epe ertain-luzerako ekintza plan bat zehaztu nahi du, ibarreko eragileekin batera industria lurzoruen, prestakuntzaren, ekin-tzailatzaren edo nazioartekotze programen beharrak jaso ahal izateko.

DUELA 25 URTE...



Belarra mozteko makina

Txapel Azpi futbol taldeko futbolariak bazuten premia bat: belarra mozteko makina. Futbol zelaiko belarra traktore batekin moztzen zuten, baina, ondoren, jokalariek belarra jaso beharra zuten, eta inork ez zuen nahi. Belarra mozteko makina erosteko zozketa antolatu eta 200.000 pezeta (1.202 euro) jaso zituzten. Zituzten beste 50.000 pezetekin (300,5 euro) batera udalari eman zizkioten. Hark jarri zuen 300.000 pezeta (1.803 euro) arte falta zena. Bi urteren ondoren makina erabilgarri zuten.

Bi herrik suteen kontrako plan homologatua dute

Irurtzunek eta Iturmendik Basoetako Suteen arriskuen aurreko Udal Jarduera Plana dute. Aurretik lau udalek zuten. Planak onartuta, haiek indarrean ezartzeko neurriak hartu beharko dituzte udalek. Beti ere, suteek eragindako kalteak murriztu asmoz

IRURTZUN / ITURMENDI

Nafarroako Gobernuak egindako azterketaren arabera Irurtzunen eta Iturmendin udan suteak izateko arrisku handia dago. Hori dela eta bi udalek Baso suteen arriskuari aurre egiteko Udalaren Jarduketa Plana egin behar izan dute. Nafarroako Babes Zibileko Batzordearen aldeko txostena jaso ondoren, udalbatzak onartu zuen eta, azkenik, Babes Zibileko batzordeak haiek homologatzea onartu zuen asteazkenean. Nafarroan dagoeneko 83 udalerririk dituzte suteen kontrako planak indarrean. Horien artean daude Arakil, Irurtzun, Uhartea Arakil, Lakuntza, Iturmendi eta Altsasu.



Suhiltzaileak sute bati aurre egiteko prestatzen. SUHILTZAILEAK

Hurrengo pausoak

Homologazioa planak ezartzeko fasearen aurreneko pausoa da. Fase horrek lau neurri mota jasotzen ditu, baso suteek edo interfaze suteek eragindako larrialdi egoeretan biztanleei, azpiegiturari eta ondasunei eragindako eraginak murrizteko.

Lehenik suteen kontrako tokiko egitura bat ezartzen da, udalerrien baliabide propioekin, eta, aukera egonez gero, Bat-batean Laguntzeko Taldeak sortzen dira, udal langileek eta boluntarioek osatutakoak. Talde horie-

tako kideek baso suteetan prestakuntza espezifiko dute. Bestetik, Baso Defentsarako Elkar-teak sor daitezke herrietan. Talde horiek suebakiak, prebentzio garbiketarako eta nekazaritzaren munduarekin lotutako beste jarduerak batzuk koordinatzeaz arduratzen dira.

Bigarren neurri multzoaren helburua interfaze eremuetako erregai kopurua murriztea da. Hau da, herrietako eraikinak mendiarekin edo nekazaritzako laboreekin kontaktuan dauden eremuak kontuan hartzen dituz-

te eta arriskua murrizteko neurriak gomendatzen dituzte. Neurrien hirugarren multzoak materialak erostea eta herriak itzaltzeko azpiegiturak hobetzea aurreikusten du. Besteak beste, sute ahoak, bideak seinaleztatzea, eta abar

Azkenik, baso sutearen arriskuari buruzko informazioa eta prestakuntza ematen die herri-tarrei, bai eta baso sutearen ondoriozko larrialdietan herri-tarrek hartu behar dituzten autobabeserako neurriak buruzkoa ere.

Bakardade ez hautatua kontatzeko gonbidapena

Halako egoerak inspiratzen dituzten narrazio laburren lehiaketa antolatu dute Teknoadinekok eta liburutegiek

SAKANA

Mikroipuin lehiaketa deitu dute Teknoadineko proiektuak eta Lekunberriko eta Sakanako liburutegi publikoek. Bakardadea, zaintza, komunitatea edota zahartza-roa bizitzako etapa aberats

gisa islatzen dituzten narrazio laburrak jaso nahi dituzte. Teknoadineko proiektua ibarreko hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak bulkatutako sare komunitarioa da, 65 urtetik gorako pertsonen bizi

ditzaketen hauskortasun soziala eta bakardade egoerak prebentzea helburu duena. Lehiaketaren bidez aipatutako gaien inguruko hausnarketa eta sentsibilizazioa sustatu nahi dituzte.

Testuak euskaraz edo gaztelaniaz aurkez daitezke eta, gehienez, 300 hitz izan behar dituzte. 16 urtetik gorakoek aurkez ditzakete lanak, bakarrik. Lanak garagarriaren 15erako aurkeztu beharko dira liburutegietan edo teknoadineko@garaian.eus e-postan. Hiru sari izanen dira.



Zabaldu bitartean hainbat lan daude egiteko: belarra moztu, igerilekuak garbitu eta bete, etab.

Bukatuta Dantzalekuko igerilekuko lanak

Igerileku ertaina eta konpentsazio ontziak berritu dira. Udalak eta Altsasu Kirol Elkartearen arteko lankidetza hitzarmenaren ondorioz aurten taberna zabalik egonen da. Kirol elkartekoek terraza moldatu dute eta futbol zelaian ere lanak egin dituzte

ALTSASU
Udako igerileku sasoia garagarriaren 27an zabalduko du Altsasuko Udalak. Udaberrian konponketa lanak egin dituzte igerileku ertainean, zituen iragazketa arazoak konpontzeko. Haren zeramikazko estalduraren gainean PVC armatuzko estaldura berria jarri da. Bestetik, igerileku handiaren eta txikiaren

instalazioaren konpentsazio hodiak ere konpondu dira. Ura barrutik kanpora eta kanpotik barrura sartzen zitzairen. Urak kanpora ihes egitearen ondorioz, igerilekuei ura etengabe sartu behar zitzairen eta, ondorioz, uraren tenperatura hotza zen. Eta ura sartzearen ondorioz, berriz, lohia sartu eta ponpak trabatzen dira. Lanak Construc-

ciones Noveleta S.M. enpresak egin ditu 56.986,08 euroren (BE-Zik gabe) truke.

Hitzarmena
Aurreko bi urteetako sasoiarekin alderatuta, aurtengo beste berrikuntza da taberna-jatetxea eta haren terraza zabalik egonen dela. Izan ere, udalaren kirol azpiegiturak kudeatzen dituen

Atabo Altsasu SM enpresa publikoak eta Altsasuko Kirol Elkartek lankidetza hitzarmena sinatu dute. Adostutakoaren arabera, Altsasuko Kirol Elkartek taberna eta terraza zuzenean kudeatuko du bere taldeen entrenamenduak eta lehiaketa ofizialetako partidak dauden urteko hilabeteetan, baita udan ere, igerilekuak irekitzen diren hilabeteetan.

Lankidetza hitzarmenean jaso denez, udal enpresak Altsasuko Kirol Elkarteari Dantzalekuko futbol zelaia, aldagelen, lokalaren eta taberna-jatetxearen erabilera uzten dio. Horrela, zelaia erabilera orain arte bezala formalizatu da, udal futbol eskolaren entrenamenduekin, gazteen eta seniorren kategoriekin eta lehiaketa ofizialetako partidekin. Aldagelen erabilera ere sartzen da, bai zelaiko aldagelena, bai igerilekuena.

Elkartetik azaldu dutenez, "neska talde bat arduratuko da tabernaren kudeaketaz eta, horretarako, orain kontratua zehazten ari gara. Udalak jarritako baldintzetako bat da igerilekua zabalik dagoen bitartean egunean zortzi orduz zabalik egon behar duela tabernak". Tabernako terraza ere berritu dute. "Hornitzaile baten bidez jakin genuen Lakuntzako Lagun Artea tabernak terraza kendu behar zuela eta guretako hartu genuen. Uste baino lan gehiago izan zen. Torlojuekin lotuta egonen zelakoan geunden, baina dena soldadura zen. Hura moztu eta kide batzuen kamioan ekarri genuen". Terraza berria kokatzen laguntzeko Oraa garabia enpresaren laguntza izan zuten. "Orain Aritz dena margotzen ari da".

Elkarteko kideak ere futbol zelaiko ateen eta atletismo pis-

taren artean dauden D itxurako espazioak txukundu zituzten. "Porlana zegoen eta futbol zelai zaharretik kendutako eta soberan zegoen belar artifiziala jarri dugu. Lan horiek denen artean egiten ditugu, lanak eta bestelako konpromisoek tarte bat libre uzten digutenean".

Bulegoa
Hitzarmenean ere jaso da igerilekuen ondoko eraikinaren lehen solairuan dagoen lokala elkarteari erabiltzen uztea. Lokal hori klubaren bulego izanen da. Elkartetik azaldu dutenez, "oraindik ezin izan dugu lekualdaketarik egin. Fronte gehiegi ditugu. Alde batetik, areto futboleko hiru kopako final hartu genituen Zelandin larunbatean. Bestetik, domekan Erregional mailako gizonezkoen futbol taldeak igoerako kanporaketako joaneko partida jokatzeko du Urrotzen. Itzulerakoa Altsasun izanen da. Igoko balitz sekula ikusi gabekoa lortuko genuke, denboraldi bakarrean hiru talde mailaz igoko bailirateke. Aurretik emakumezkoen taldea eta areto futbolekoa 3. mailara igo dira".

Kontsumo bonuak

Udalak eta Dendarien Elkartek herriko establezimenduak deskontuak eskaintzen dituzten bonuen kanpaina egiten dute hurrengo hilabetean. Bonuak lortia kultur gunean doan eskura daitezke eta ekainaren 30era arte erabil daitezke.

Benetan ez duzula une bakoitzerako
ogi egokia aurkitzen?

Amaya
OGITEGIA
ZUTEN 1964- GURUTIA
amayaokindegia.eus
@panesamayaogiak

Txaparen inertzia

Ohiturak aldatu eta hitza partekatuz, hizkuntzari hauspoa emateko garaia izan da Euskaraldia. Euskal Herrian euskara eroso bizitzea ahalbidetu dute txapa txiki batzuk hamaika egunez. Eta orain?

A.A.I. SAKANA

Igande gaua iritsi eta zenbatek kendu zuten txapa? Etxean, hor nonbait, aurreko edizioetako txapak egonen dira. Bada aurtengo txapa aurreko txapekin gorde duenik? Euskaraldiak zenbat jende bihurtu du bildumagile? Lau ariketa, lau txapa. Hasiera bat? Eta txaparekin euskara gorde ote dute? Baden bezala despistaturik oraindik ere txapa janzten duena. Edo ez dira despistatuak? Edo euskarak 365 egun dituela aldarrikatzen ari dira zuk despistatutzat dituzunak? Txaparekin jarraitzen duten horiek. Hamaika.

Txapa, txapa sinple bat, 11 egunez aparteko botereak dituela erakutsi dizun txapa soil bat. Ahoa edo belarria marraztuta duena. Txapa sare bat, adorea eman dizuna pausoa ematera eta euskaraz hitz egitera. Irri bat sortu dizun txapa, inguruan baten bat, edo batzuk ikustean. Harritu zaituena batzuengan jantzita ikustean. Poztu, eta zure euskaradunen komunitatea puztu duten txapak, euskarazko sare sozial bat eskaini dizutena, ekilibrista ez izateko, sarearekin eroso askotariko jendearekin euskaraz konektatzeko giltza eman dizun txapa. Zer ote du txapak eus-

kara hitz egiteko distantziak txikitu dizkizula eta euskararen lurraldea handitu dizula.

Mugimendua eragin du txapak, zureak, nireak, denonak. Euskara biziberritu duzu zuk eta, momentuz, zenbatuta dauden 134.999 txapadunek. Txapa asko dira horiek, mugimendu asko. Komunitate bat irudikatu duzu, dugu, txapen bidez. Bakoitza indartsuago gara txapekin, eta elkarri eragin diogu. Zuk, nik, guk, denok. Txapatik txapara, elkar zaindu dugu, euskarazko komunitate bat sortu arte. Mundu bat, txapa bezain borobila, euskararen sartzen dela ikusi duzu, dugu. Gure lekua euskara ere badela adierazi digute ahotxapak eta belarritxapak.

Euskaraldia, 11 hizki. Hamaika egunez bada ere talde izugarri handia izan gara, euskaraz. Beraz, merezi du txapa kentzeak? Sinbolikoki kenduz gero, jarrerari eutsiko diogu? Izanen gara aho? Izanen gara belarri? Batera eragiten segituko dugu? Euskararen erabilera handitu nahi dugu? Nola zen aurreko edizio bateko lelo hura? Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan. Hitzek ekiteko garaia. Elkar mugituz egingo dugu.



LAKUNTZA Musika ez zen falta izan ariketa kolektiboa bukatzeko. EUSKARALDIA



LIZARRAGA Kontzeju etxetik atera gabe munduari buelta euskaraz eman zioten. EUSKARALDIA



Jendaurreko entseguarekin Haize Berriak bandak ariketarekin bat egin zuen. EUSKARALDIA



ETXARRI ARANATZ Tamainako txapak behar zituzten erraldoiek. EUSKARALDIA



BAKAIKU Txapadunen talde argazkiarekin agurtu zuten ariketa. EUSKARALDIA



ALTSASU Euskararen markoa erraldoi eta konpartsakideendako. EUSKARALDIA



ITURMENDI Euskaraz bizi den herria aldarrikatu zuten. EUSKARALDIA



OLATZAGUTIA Kidam magoak euskarazko arnasmune sortu zuen. EUSKARALDIA



URDIAIN Agurreko polka dantza ondoren ere euskaraz aritu ziren. EUSKARALDIA



ZIORDIA Itur bedeinkatuaren emariak euskaraz egiten segiarazi ziren. EUSKARALDIA



APP-A

Hemen da!



Zergatik eta zertarako deskargatu aplikazioa?



Kide baldin bazara, aplikazioan izanen duzu **GUAIXE KIDE TXARTEL digitala**.



Zozketa eta lehiaketa guztietan modu erraz batean parte hartzeko aukera izanen duzu.



Norberak nahi dituen herri eta **intereseko gaiei buruzko kazetaritza edukiak eta azken orduko abisuak** lehenesteko aukera, nahieran.



GUAIXEren aldizkariak PDFan, argazki galeria, audio eta bideoekin mugikorrean irakurtzeko aukera.



Gustuko edukiak gordetzeko aukera, beranduago irakurtzeko; **edukiei iruzkinak egin eta artikulua norbaiti bidaltzeko** aukera.



GUAIXE.EUS webguneko **ikus-entzunekoak eta argazkiak** doan deskargatzeko aukera.



Sakana osoko kultur eta jarduera agenda, momentu oro eguneratua.



0 Km Gida, Sakana osoko zerbitzu eta komertzioen gidarik berrituen eta osatuenarekin.



Bezero arreta atala, **intzidentzien berri emateko**: aldizkaria ez duzula jaso, irratia ez dela entzuten, edota beste edozein eskaera edo abisu bidaltzeko.



Gure **komunitateko kidea** izanda, gure komunikazio proiektua garatu eta hobetzeko prozesuan lagunduko duzu.



Makina bat etxarriar hurbildu ziren Labritera Joanes Bakaikoa animatzera. UTZITAKOA

Seigarren txapela, eta segi aurrera

PILOTA Joanes Bakaikoak B Serietako Buruz Buruko bere hirugarren txapela lortu zuen larunbatean Labriten, Asier Agirreri 15-22 irabazita. Horiei lau eta erdian dituen beste hirurak gehitu behar zaizkio. Etxarriarra denboraldi ikaragarria egiten ari da

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ B Serietako Buruz Buruko finalen ikusgarri aritu zen Joanes Bakaikoa Satrustegi pilotari etxarriarra. Baikoko aurrelariak bere enpresako Asier Agirre izan zuen aurkari, eta hasieratik ateratako aldea ezin hobeki kudeatu zuen, bere hirugarren Buruz Buruko promesen txapela lortuaz, 2018 eta 2023koaren atzetik. "Oso

pozik nago, sekulako ilusioa egin dit" aitortu du Bakaikoak. Hasiera bikaina egin zuen etxarriarrak, 2-8 aurreratuta. Finalaren gakoetako bat izan zen, hortik aurrera Agirrek beti atzetik ibili behar izan zuelako. "Maila handia du, eta banekien berari eroso jokatzeko uzten banion eskuinarekin min handia egingo zidala. Hori ekiditen saiatu nin-

tzen, eta uste dut bere jokoa baliogabetzen jakin nuela. Gainera, tanto luze eta gogor batzuk jokatzen genituen, eta banago pixka bat bete zela. Agian berak eskuinarekin gehiago luzatzen zuen pilota, baina nukeutsinon, jokoan iniziatiba hartu nuen, eta bera defentsan jarrarazi nuen. Hori ere gakoa izan zen. Gero, partida erdian hurbildu zitzaidan (14-16)

eta mina egin zidan, baina bukaeran nire jokoa egin ahal nuen, eta 22ra iristea lortu nuen".

Bakaikoa guztiz kontzentratuta egon zen, ez zen partidatik atera. "Nire helburua izan zen partida guztian zentratuta mantentzea. Kontziente nintzen momentu txarrek iritsiko zirela, partida erdian gertatu zena, eta une txar horietan burua hotz mantentzea zela gakoa. Eta uste dut mantendu nuela".

Josu Igoa etxarriarra da bere botilleroa, baina pilota partida zuenez, bere fisikoko entrenatzaileak, Ruben Ayerrak, hartu zuen bere tokia. "Konfiantza handia dugu. Esan nion edozer gauza esateko, ona edo txarra, beldurrik gabe. Eta oso ongi".

Labrit bete zuten zaleen artean etxarriar ugari zeuden. "Tantoz tanto euren animo oihuak nabaritzen nituen, eta asko eskertzen diet". Ondoren, "behar den moduan" ospatu zuen txapela. "Labriten jokatzeko baino leku hobetik ez dago gero ospatzeko, bertan zaudelako, Iruñeko Alde Zaharrean. Hor ibili ginen presarik gabe, gustura".

Hobetzen

B Serietako 2025eko Buruz Buruko txapela irabaztearekin batera, datorren urtean maila nagusiko Buruz Burukoan jokatzeko txartela lortu du Bakaikoak. "Bai, eta kontentu, baina geroz eta gehiago uste dut norberak egunerokoan % 100 eman behar duela, eta bereziki horregatik oso pozik nago, uste dudalako hobetzen ari naizela; horretan jarraituko dut, ongi entrenatzen, eta dudak guztia ematen. Egia da txapelketak irabazteak poza ematen dizula, baina azken hau irabaziko ez banu ere, ni pozik egongo nintzateke egiten ari

naizen denboraldiarekin". Eta ez da gutxiagorako. 2024an lau eta erdikoa irabazi zuen, eta 2025ean Buruz Buruko. Sei ditu guztira, hiru Buruz Buruko, eta beste horrenbeste lau eta erdiko.

Soilik binakako txapela falta du hiruko koroa lortzeko. Aurten, lau eta erdikoa irabazi berritan, enpresak ez zuen binakakorako hautatu, katedraren sorpresa-rako. "Enpresaren erabakia izan zen, eta errespetatzen dut. Bakoitzak bere esku dagoena ahalik eta hobekien egin behar du, eta horretan zentratzen naiz ni. Binakakoarena ez zegoen nire esku, eta horri ez dago bueltarik ematerik".

Udako torneoetarako gogotsu

Txapelketa ofizialak despedituta, udako torneoak datoz. "Gustuko ditut. Beste mota bateko tentsioa egoten da, askoz ere lasaia. Partida kopuru aldetik, udan gehiago jokatzeko ditugu, baina politak dira, disfrutatzeak".

Bizkaia torneoa Sollube taldeko buruz buruko pilotaria da. "Txapelketa berezia da, taldeka jokatzeko dena, 10 tantoko bi setetan". Udako lehendabiziko torneo garrantzitsuenak sanferminetakoak da. "Nafar guztiondako berezia da sanferminetan aritzea. Ahalik eta hobekien jokatzeko saiatzen gara, baina, horretaz aparte, Labriten dagoen giro berezi hori barneratzen saiatzen naiz. Berezia da sanferminetan jokatzeko, bizitza guztirako oroitzen polita".

"TXAPELAK ILUSIOA EGIN DIT, BAINA BEREZIKI POZIK NAGO HOBETZEN ARI NAIZELAKO"

Burundaren aurkezpena

TXIRRINDULARITZA Burunda Txirrindularitza Klubak bere 48. denboraldiko taldeak aurkeztu zituen maiatzaren 18an. Guztira 37 txirrindulari trebatzen ari dira, hamaika kadete, sei infantil, zazpi kimu, sei hasiberri eta zazpi promesa. Lehendabizikoz, klubak ezin izan du juniorren taldea atera. Eskerrak eman diete babesle eta gurasoei, "ezinbestekoak" direlako.



BURURUNDA TXIRRINDULARITZA KLUBA

LABURREAN

Iturmendiren ondotik, Nafarroako Itzulia



Afizionatuen XIII. Iturmendi Trofeoan, esprintean Iker Gomez hirugarren sailkatu zen, lehen nafarra. Aimar Tadeo 22. eta Mikel Uncilla 29. sartu ziren. Afizionatuak atzo hasi zen Nafarroako Itzulian daude murgilduta. Larunbatean Egarreretako Itxaserrin despedituko da, Lizarraga eta San Miguel portuen ondotik (ikus ordutegia agendan).

Ekain Imazen bigarrena, Galarren



Larunbatean junior mailako XXII Galar Sari Nagusia jokatu zen (94 km). Tolosa/Danena taldeko Ekain Imaz altsasuarrak primeran irakurri zuen proba, behar zuen tokian eraso jo, eta bakarrik agertu zen Galarko helmugan (2:20:26), denboraldiko bere bigarren garaipena lortuaz. Ekaitz Perez olaztiarra (Zu eta biok) 26. iritsi zen (2:28:01).

Hamdi, Espainiako kick boxing txapelduna



Asteburuan 2025eko Espainiako Kick Boxing Txapelketa jokatu zen La Nucian. Mohamed Hamdi borrokalari irurtzundarrak sasoi batean jarraitzen du eta atzera ere Espainiako txapelduna da, eliteen 86 kilo azpiko kategorian ikusgarri aritu eta gero. Hamdik gogor entrenatzen eta maila goreneko nazioarteko borroketan lehiatzen segitzen du.

Nafarroako selekzioarekin, Bartzelonan

MENDI LASTERKETAK Dantzaleku Sakana atletismo eskolako Sihets Agirrek, Victor Fernandezek eta Aratz Mendozak eskola adineko Espainiako Mendi Lasterketen Txapelketan parte hartu zuten asteburuan. "Esperientzia ikusgarria" izan da

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Asteburuan eskola adineko Espainiako Mendi Lasterketen Txapelketa jokatu zen Bartzelonan. Nafarroako selekzioarekin Sakana Atletismo Klubeko Sihets Agirre arbizuarra, Victor Fernandez irurtzundarra eta Aratz Mendoza arbizuarra lehiatu ziren. Selekzioko kideendako "esperientzia ahaztezina, ikusgarria" izan dela azaldu du Dantzaleku Sakana Atletismo Eskolako monitorea Aitor Mendozak. Nafarroako selekzioaren ardura Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioko Miren Eizmendi presidenteak eta Julen teknika-riak izan zuten.



Nafarroako eskola adineko mendi lasterketen selekzioa, teknikariekin. UTZITAKOA

Larunbatean Molins de Rein lasterketa bertikala izan zuten jokoan. Infantilen mailan 2,2 km eta 237 m desnibela zuten aurretik, eta Sihets Agirre 26. sailkatu zen (17:47). Kadeteetan, 3,3 km eta 407 m desnibeleko proban, Victor Fernandez 30. iritsi zen helmugara (23:27), eta Aratz Mendoza 49. (29:01).

Igandean, aldiz, infantilek 4,8 km-ko lasterketa (240 m desnibela) eta kadeteek 8,1 km-koa (430 m desnibela) osatu behar izan zuten, Papiolen. Nafarroako selekzioak txukun aritu ziren. Tartean, Sihets Agirre infantila 25. sailkatu zen (32:51), eta kadeteen mailan Victor Fernandez 23. (45:44) eta Aratz Mendoza 47. (58:40).

Mendi korrikalari sakandarrak "oso gustura" aritu dira Nafarroako selekzioarekin. Lehenengo aldia da Nafarroako Mendi Federazioak eskola adineko selekzioa prestatzen duela –selekzioa sortzeko eskaria behin eta berriz egin zuen Dantzaleku Sakana klubak–, eta ziur ez dela azkena izango. Guztiak ongi aritu dira, Aratz Mendoza baita ere, nahiz eta diabetesa izan.

Mank-ek triatloia sustatzen jarraitzeko apustuari eusten dio

TRIATLOIA Ekainaren 30etik uztailaren 11ra Sakanako Triatloi Eskola antolatu du Arbizon. Izena ematea, zabalik

Ez dira triatloiaren urrezko garaiak, baina Sakanako Mankomunitateak igeriketa, txirrindularitza eta atletismoa lotzen dituen kirola sustatzeko apustua egitearen alde jarraitu nahi du. Horrela, udari begira Sakanako Triatloi Eskola antolatu du Mank-ek, Arbizon. Aurten lehenago izango da, ekainaren 30ean hasi eta uztailaren 11n despedituko baita.

Izena ematea zabalik dago ekainaren 16ra arte, edo 25 lekuak bete arte, Kirol Zerbitzuan (683 343 854). Prezioa: 50 euro. Maalen Beraza eta Ekhi Congil izango dira monitorea, eta 10:00etatik 12:30era arte landuko dute triatloia, bereziki, jolasen bidez.

Sakanako Triatloia, Altsasun

Sakanako Triatloi Eskolan parte hartzen duten neska-mutiko gehienek Mank-ek antolatzen



Sakana Triatloi Taldeko gazteak.

duen Sakanako Haurren Triatloian parte hartzen dute. Normalean Urdiaingo Aitziber igerilekuetan jokatzen da, baina aurten, uztailaren 5era aurreratu denez, Urdiaingo festekin egiten du bat eta proba Altsasun egitea erabaki du antolakuntzak.



CBASK

CBASK kadeteak, txapeldunak

SASKIBALOIA CBASK-ek denboraldi amaierako jaia antolatu zuen larunbatean Zelandin, festa animatua. Egitariaren ginga mutilen bigarren kadete mailako final handia izan zen. Azken faseko final lehiatu eta animatuan, CBASK-ek oso ongi jokatu zuen eta 57-46 hartu zuen mendean Navarro Villoslada B, ligako titulua irabaziz.

LABURREAN

Xotako infantilak,
kopako txapeldunak

Irurtzungo emakumezkoen Xota talde infantilak kopa irabazi du, larunbatean Azkarrena taldeari 4-2 irabazita. Leire Fernandez (2), Ane Beraza eta Laia Beraza izan ziren golegileak. Denboraldi ederra egin dute irurtzundarrak, ligan hirugarrenak izan baitira, Cantera eta Azkarrenaren atzetik, eta orain kopa irabazi dutelako.

Irristaketa eskolako ate
irekien eguna Altsasun

Altsasuko irristaketa eskolako ate irekien eguna antolatu du larunbatean, 17:00etan, Zelandi frontoian. 5 urtetik aurrerako gaztetxoak ongi etorriak dira patinak probatzera eta eskolan Oscar Zamarronekin zer lantzen duten ikustera, aurre lehiaketa taldekoak barne. Datorren ikasturterako irristaketa kirol eskolan izena ematea zabalik dago.

Sakanako Herri Kirol
eguna, Urdiainen

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuta, Urdiainek Sakanako herri kirolarien festa hartuko du igandean, 12:00etan. Sakanako Aizkora Eskolako eta Sakanako Harri Jasotze Eskolako ikasleen lana ikustez gain, bestelako herri kirolez disfrutatzeke aukera izango da ikasturte bukaerako festa honetan.

Altsasu eta Arbizu,
denboraldi borobila

ARETO FUTBOLA Altsasuk eta Arbizuk maila autonomikoko koparen finala jokatu zuten leporaino beteta zegoen Zelandi kiroldegian. Arbizuarrak aurreratu ziren, baina Altsasuk irabazi zuen kopa, markagailua irauliz. Bi taldeak maila autonomikoko onenak izan dira

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Altsasuko Zelandi kiroldegia Nafarroako areto futboleko hiru kopako final hartu zituen larunbatean. Altsasu Kirol Elkartearendako guztia antolatzea erronka izan zen, baina Nafarroako Futbol Federazioak, Rafael del Amo presidentea buru, klub altsasuarra zoriondu zuen, "guztia primeran" antolatu izanagatik. Rafael del Amok eta Altsasuko alkate Javier Ollok banatu zituzten sariak. "Guztia primeran atera zen, ikusgarri. Taberna prestatu genuen, eta mugimendu handia egon zen. Guztia ongi antolatzeak lan handia izan zuen, baina oso pozik gaude" nabarmendu du Goio Rodriguez Marquez Altsasu Kirol Elkarteko areto futbol jokalaria.

Lehen finala emakumeen senior mailakoa izan zen. Orvina A ligako irabazleak Berriozarko Mendialdea B taldea izan zuen aurreratu ziren, baina Orvinak buelta eman zion (1-3), kopa lortuz.

Etxekoa, jendetsuena

Ikusleek irrikaz espero zuten finala maila autonomikokoa zen, Altsasu ligako txapeldunak eta Arbizu Kirol Elkartea bigarrenak jokatu zutena. "Etxeko bi taldeen zaleek Zelandi topera bete zuten,



Altsasu Kirol Elkarteko areto futbol taldea, koparekin. UTZITAKOA



Arbizuk denboraldi ederra egin du, ligan eta kopan txapeldunordea izan baita. UTZITAKOA

ikusmin gehiena piztu zuen finala izan zen". Lander Badosek Arbizu aurreratu zuen 6. minutuan, eta Altsasuri buelta ematea kostatu zitzaion. "Arbizuk partida ezberdina planteatu zuen. Gola sartu eta gero, atzean sartu ziren gehiago, eta kontraerasoan saiatu" azaldu du Rodriguezek. Baina 19. minutuan Aritz Sevillak berdintzea lortu zuen eta ondoren beste bi gol sartu zituen, hat trick-a. Mikel Ruizek egin zuen Altsasuren laugarrena (4-1). Bi taldeek txalo zaparradarekin jaso zituzten trofeoak. "Giro ederra egon zen, bi taldeek harreman handia dugulako, lehia sana. Arbizuk sekulako denboraldia egin du, eta guk baita ere. Sakanan pozik egoteko modukoa da".

Bi taldeak izan dira maila autonomikoko onenak. Merituz, hirugarren mailara igotzea lortu dute. Altsasu igoko da, eta, halaber, maila autonomikoan beste talde bat sortuko du. "Gazteagoak hurbildu dira, gogotsu, eta ahalegina egingo dugu".

Arbizu Kirol Elkartek egin dako denboraldiarekin "oso pozik" dago Endika Mendinueta. "Herriko jendearekin ateratzen dugu taldea aurrera, eta hori da gure helburua, Arbizun areto futbola izatea". Nahiz eta hirugarren mailara igo, maila autonomikoan jarraitzea erabaki dute. "Hirugarren mailako saltoa agian handiegia da, eta guk herrikoekin jokatuz jarraitu nahi dugu lehiakor izaten. Arbizuko gazte gehiago hasiko dira, eta pozik gaude".

Azkenik, hirugarren mailako finalean lehia oso estua izan zuten Orkoiengo Kirol Sportek eta Antsoingo Gazte Berriak taldeek, baina azkenean Gazte Berriak 3-4 gailendu zen.

Altsasun, Etxarrin eta Lakuntzan,
igoera faseekin emozionatuta

FUTBOLA Erregionalean Altsasuk Urrozterra eta Etxarri San Ignacio dituzte aurkari, eta jubeniletan Lagunek Doneztebe

Erregional mailan liga partidarik galdu gabe bukatu du Altsasu liderrak (96 puntu), eta hirugarren Etxarrik (80 puntu). Biek igoera fasea dute zain. Lagun Artea zazpigarren izan da (53 puntu), eta mailan segiko du.

Igoera fasean Altsasuk Urrozterra du arerio. Joaneko partidatik igandean, 18:00etan, jokatu da Urrotzen, eta Altsasu Kirol Elkartek autobusa antolatu du, "Elkarrekin igoeraren bila, guztiok Urrotzera!" lelopean (624

648 790, 16:15ean). Etxarri Aranz San Ignacioren kontra ariko da. Joaneko partida larunbatean, 12:00etan, jokatu dute Nafarroako Unibertsitate Publikoko zelaian.

Bigarren jubenil mailako Lagun Artea igoera faseko bigarren kanporaketan dago. Joaneko partidatik Doneztebera 3-0 irabazi zion talde lakuntzarrek, eta itzuliko partida larunbatean, 17:00etan, jokatu dute, Donezteben. Autobusa antolatu dute (619 662 398, 14:30ean).



Jubenilek igoera eskura dute. LAGUN ARTEA



Roberto Martilek etxekoekin eta etxean esan zuen agur. Xotako presidente Tatono Arregik kamiseta oparitu zion. XOTA

"Anaitasuna berdez jantzita eta topera, ginga ederra litzateke"

ROBERTO MARTIL FERNANDEZ XOTAKO KAPITAINA

ARETO FUTBOLA Irurtzundarrak areto futbola gorenean utziko du, Xotak ligako tituluko play-offak jokatu eta gero. Igandean Palma Futsal hartuko dute, Anaitasunan

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN Osasuna Magna Xota ligako titulua erabakitzeko play-offetan dago bete-betean. Ligan zazpigarren sailkatu zenez, bigarren sailkatutako Islas Baleares Palma Futsal du arerio. Bart joaneko partida jokatu zuten, Palman, eta itzulerakoa igandean izanen da, 12:00etan, goraino egongo den Anaitasunan. Berdinduz gero, hirugarren partida ekainaren 4an jokatuko lukete, Mallorcan. Gorenean, ligako tituluagatik borrokan, utziko dio Xotako jo-

kalari izateari Roberto Martil Fernandez kapitainak (1987-02-24, Irurtzun). Oso eskertuta eta pozik doa Martil, ametsa bete duelako. Baina behin amesten hasita, zergatik play-offetako finale-ra heltzearekin ez amestu?

"20 URTE ASKO DIRA. HARROTASUNA ETA POZ HANDIA SENTITZEN DUT ATZERA BEGIRATZERAKOAN"

Bizitza eskaini diozu Xotari. 6-7 urterekin hasi zinen areto futboleant, baina aldi berean karatean trebatzen zinen, aitarekin.

Gure aita, Luis Martil, karate irakaslea zen. Yolanda ahizpa eta biok zortea genuen, bi kirolletan aritzen ginelako. 16-17 urterekin kirol bat aukeratu behar izan nuen eta areto futbolaren alde egin nuen, pena pixka batekin, karatea ere oso gustuko nuelako. Aitari pena ematen zion eta hasieran haserrealdi batzuk izan genituen, baina ulertu zuen.

**Ulertu, eta animatu, zure zale fidele-
lenetako bat delako.**

Nire lehendabiziko jarraitzailea da. Beti egon da nire alboan, animatzen, ongi gaudenean eta gaizki gaudenean. Eta beti errespetu handiz, oso lasai. Niretako aita eredu oso ona izan da.

Karateak sustatzen dituen baloreak praktikan jartzen dituelako: errespetua, guztiaren gainetik.

Hori da. Batzuetan jendea harmailetan oso sutsu egoten da, bere onetik aterata, baina aita beti hor goian egoten da, ixilik, ni babesten. Orain aita naiz, eta alabekin nola jokatu behar dudan ikusteko eredu ederra da aita.

15 urte zenituela talde nagusiarekin entrenatzeko deitu zizun Imanol Arregi entrenatzaileak. Zer sentitu zenuen?

Poza, urduritasuna... emozio asko batera. Oso gaztea nintzen eta ez nuen espero, bigarren taldean jende oso ona zegoelako. Eseverri, Afranio eta halako jokalar handiekin entrenatzea sekulako poza izan zen, baina oso urduri nengoen.

2005ean debutatu zenuen Xota talde nagusiarekin, Azkar Lugoren kontra. Gogoan duzu?

Partida berezia izan zen, beti egongo da nire buruan. Xotak baja asko zituenez, astean zehar bagenekien jokatu genuela, bai nik eta Joseba Lazkano leitzarrak baita ere. Urduri nengoen, baina kantxara aterata urduritasun horiek arintzen joaten dira. Gol bat sartuta aurretik jarri ginen, irabazten. Garai haietan ez ziren horrenbeste argazki ateratzen eta pena da, ez dudalako oroigarrik.

2006/2007an Xotak utzita Playas de Saloun jokatu zenuen, eta 2007an Lizarrako Zalatamborren. Han zeundela, Xotaren baja bat betetzeko deitu zizun Imanolek. 2007tik Xotatik ez zara mugitu eta ezinbesteko jokalaria izan zara. 20 urte, zein da zure lehendabiziko sentsazioa atzera begiratzen duzunean?

Poza eta harrotasuna. 20 urte dira, urte asko, gauza onak, txarrak... denetatik. Poza eta alaitasuna, batetik, baina negar egin dugu baita ere. Nire zaletasuna nire bizimodua egin dut, eta gai-

"XOTAK BIZITZA EMAN DIT, ARETO FUTBOLAZ BIZITZEKO AUKERA. DENA. OSO ESKERTUTA NAGO"

nera etxean. Eta hori niretako oso garrantzitsua da. Urtero kanpotik jendea etortzen da Xotara, bere herrialdetik ateratzen dira, eta hori zaila da, familia urruti duzulako. Nik hemen egin dut nire kirol ibilbidea, etxean, eta horrekin geratzen naiz.

2008ko kopa, 2010eko play-offetako finala, 2017ko Errege kopako finala... Titulurik lortu ez izanaren arantza duzu?

Ez. Badakigu Xota zer den, zer garen. Gurea klub txikia da, ez da talde handi horietako bat, Barça, Inter, El Pozo eta halakoak bezala. Hala ere, tituluak lortzeki oso gertu egon gara, eta ni horrekin geratzen naiz. Niretako txapeldunak izan gara, bi final jokatu ditugulako, eta talde askok ezin dute hori esan. 2010ean ligako tituluko play-offetako finala jokatu genuen, eta 2017an errege kopako finala. Guadalarara horrenbeste zale joatea, denak berdez jantzita... hori buruan geratzen da iltzatuta, ez da ahazten. Finala galdu genuen, eta hasieran triste geunden, baina Javi Eseverri esan zuen sekulako txapelketa jokatu genuela, eta ospatu beharra genuela. Eta gure familia eta lagunekin parranda ederra egin genuen. Asko gozatu dugu, eta horrekin geratu beharra dago.

Eseverri kapitain mitikoaren lekuko hartu zenuen, eta ezinbesteko figura izan zara klubean. Imanol Arregi entrenatzaile ohiaz, zer esan. Klub honetako beste handi bat da. Imanol nire kirol aita izan da. Nirekin konfiantza handia izan du, bai txikia nintzenean, eta baita handitu nintzenean ere, ardura eman zidalako. Gaur egun ere, entrenatzaile gisa laguntzen dit. Beti egon da nire alboan eta ziur beti egongo dela. Edozein zalanza izanez gero, deituko diot, ziur. Oso gertu bizi gara, gainera. Imanol gabe ziurrenik ni ez nintzen honaino iritsiko. Japoniatik bueltan da. Duen curriculum izanda, talderen batean lekua egingo du.

Baietz espero dugu. Klub bateko presidente banintz, nik ez nuke zalantzarik izango bera fitxatzeko. Ez dakigu noiz, baina ziurrenik talderen bat izango du zain. **Miguel Hernandezek hartu zuen bere tokia Xotan, baina taldearen filosofia ez zen asko aldatu, Miguel Imanolen bigarrena zelako eta bide beretik jarraitu zuelako.**

Klubaren ideia hori zen, taldeak bide beretik jarraitzea, eta Mi-

gulekin lortu dute. Miguel Imanolekin urte pila egon zen lanean, eta antzekoa egiten dugu, ideia berri batzuekin baina filosofia berberarekin. Hori, klub honendako, oso garrantzitsua da.

2023an lesio larria izan zenuen eta bigarren entrenatzaile hasi zinen MIGUELEKIN. Zer moduzko esperientzia da?

Oso ona. Lesionatua nengoela, nire buruarendako primerakoa izan zen emandako aukera, talde gertu nengoelako, jokalariekin, bidaletan... Migueli asko eskertuko diot beti, erabakiak hartzen utzi zidalako, gainera. Askok ikasi dut, eta taldeak ikusi du ni arlo horretan ere garrantzitsua naizela. Beste ate bat ireki zait, eta ea gehiago ikasi eta taldeari laguntzea lortzen dudana. **Lesioa gaindituta taldera itzuli zinen, baina marxoaren 26an azaldu zenuen aurten, 38 urterekin, areto futbol jokalarik gisa utziko duzula. Noiz hartu zenuen erabakia?**

Udan taldera bueltatzea erabaki nuen, baina, aldi berean, nire buruan argi nuen aurtengoa azken denboraldia izango zela.

Nola konturatzen zara horretaz?

Ez dakit nola azaldu; azkenean, konturatzen zara. Gorputzak eta buruak eskatzen dizute, nolabait. Jokalari izateaz gain, bigarren entrenatzaile jarraitzen dut, eta sentitzen nuen nire lekua bada ez dela jokatzeko jarraitzea. Gainera, taldea oso ongi dago, gazteak oso ongi ari dira, eta uste dut orain euren txanda dela. Psikologoak esaten zidan sasoiatsu sentituz gero, jokatzeko jarraituko nuela pentsatu beharra nuela, baina nire buruak jada klik egin du. Lesioa izan ez banu edo bigarren entrenatzailea ez banintz ziurrenik beste urteren bat segiko nuke, baina taldea beste modu batean lagundu nahi dudala sentitzen dut. Irailean, denboraldi berria hasten denean, ziur inbidia pasako dudala, baina orain pozik eta lasai nago. Klubean laguntzen segiko dut, modu batean edo bestean.

**Irurtzun aukeratu zenuen erabakia-
ren berri emateko. Ekitaldi xumea bezain hunkigarria izan zen kultur etxekoa. Bildutakoei eskerrak eman zenizkien: kluba, taldekideak, Imanol eta Miguel entrenatzaileak, familia, Eseverri... Erabakia azaltzerakoan lasaitua hartu zenuen?**

Albiste askatu nuenean, lasaigo geratu nintzen. Osasuna futbol klubak ekitaldia Sadarren egitea eskaini zidan, eta eskertzekoa

da, baina herrian izatea nahi nuen, nire jendearekin, eta alde horretatik kultur etxeko ekitaldia nahi nuen bezalakoa izan zen. Nik ez nuen prentsurreko bat eman nahi nitaz hitz egiteko; nire jendea buruz hitz egin nahi nuen, eta euren laguntza eskertu. Oso pozik geratu nintzen. Oso polita izan zen.

Irurtzongo agur ekitaldian 20 urte hauek zoragarriak izan direla esan zenuen, amets bat bete zenuela.

Bai, bere garaian ametsa bete nuen eta orain berriz bete dugu, play-offetan gaudelako, Palma Futsalekin final laurdenetan lehian. Ea finalerdietara heltzea lortzen dugun...

Hain zuzen ere, Palma Futsalen kontrako ligako azken aurreko jardunaldian sailkatu zineten play-offetarako, eurei irabazita.

Palma Futsalekin kontrako etxean oso ongi aritu ginen. Gainera, aurreko jardunaldian Ribera Navarraren kontrako derbia galtzetik gentozen. Soilik bi partida galdu ditugu aurten etxean: Manzanarese kontrakoa, azken minututan, eta derbia. Horrek pixka bat burumakur utzi zigun; Palma Futsalekin kontrako partida irabaztea oso garrantzitsua zen play-offetan sailkatu ahal izateko.

Palma Futsal Europako Champions txapelketa irabaztetik iritsi zitzaizuen Anaitasunara. Sekulako taldea da.

Bai, eta irabazi genien. Ez erraz, baina bai ongi. Eta horrek play-offetan euren kontra aritzeko motibazio eta konfiantza handia eman digu. Itzulerako partida igandean izango da, 12:00etan, Anaitasun. Ea Anaitasuna betetzen den, zaleen babes guztia behar dugulako. 2010ean ligan zazpigarrenak sailkatu ginen eta play-offetako finalera iritsi ginen. Beraz, hemen dena da posible. Taldea oso ongi ikusten dut, eta jendea oso ongi dago.

Irurtzongo talde bat lehen mailan 27 urte jarraian egotea ez dakit nahikoa baloratzen ote dugun. Gaur egun lau jokalaririk irurtzundar zartitarrak, Asier Llamas, Dani Saldise, Ion Cerviño eta zu zeu, eta tarteka Oier Aguirre iturmendiarrak jokatzeko du zuekin. Harrigarria da. Ez dugu nahikoa baloratzen, beti diot. Normalizat dugu Xota lehen mailan egotea eta harrobitik lehen mailako jokalariek ateratzea, baina horrek meritu handia du. Jubeniletan eta kadeteetan sakandara asko daude Xotan. Bestalde, Uharteko Arakilen Aralar Mendi dago, Arbizu eta Altsasu;



Roberto Martil lesiotik ongi errekeratu zen. XOTA



Kapitainaren lana taldekideak eta taldea animatzea ere bada. XOTA



Lehen senior mailako Xotako neskek omenaldi polita egin zioten Anaitasun. XOTA



Taldekideek asko estimatzen dute kapitaina, eta alboan izango dute beti. XOTA

gora doaz eta ea elkarri laguntzen diogun, ildo horretan sakondu nahiko nuke. Sakana harrotasun handia izan behar dugu.

Emakumezkoen Xota lehen senior mailako taldea da zure beste talde kuttuna. Urte asko daramatzazu taldea entrenatzen.

Hamaika urte, eta zoragarria da. Beraietaz harro nago. Beti esaten dute nik asko lagundu didala, baina beraiek ere asko lagundu naute. Eta aurrera segiko dugu. Ribera Navarraren kontrako derbia sekulako omenaldi egin zidaten. Oraindik ere urduritzen naiz gogoratzerakoan. Oso eskertuta nago.

Yolanda kapitaina zure arreba da. Biok 8 zenbakia daramazue.

Nire arreba nire eredu izan da beti. Lehen mailako Orvinara iritsi zen, eta bere ibilbidea jarraitu dut beti. Noainen bizi da eta alaba gurasoekin uzten du Xotarekin entrenatzerara etortzeko. Ahalegin handia egiten du.

Omenaldiak bata bestearen atzetik izan dituzu. Horren maitatua sentitzea ikaragarria izan beharko da.

Egia esan, ez nuen espero horren bestekoa izango zenik. Omenaldi asko, erreportaje asko... Oso eskertuta nago, jendea oso ongi ari delako portatzen nirekin.

Zer eman dizu Xotak?

Bizitza eman dit, areto futbolaz bizitzeko aukera. Dena. Jende asko eta kultura ezberdinak ezagutzea, betirako gelditzen direnak. **Imanolek bere agurrean esan zuen bezala, zu ere berdea, behin betiko?** Bai, betirako. Irurtzongoak berdeak izaten jaiotzen gara. Txikia nintzela aitak Xotaren partidetara eramaten ninduen, eta nik orain hori bera egiten dut alabekin. Esan nienean ez nuela jokatuko, triste jarri ziren, baina Xota ikustera berdin-berdin joaten jarraituko dugula jakin zutenean, poztu ziren.

Zure azken eguna nola gustatuko litzaizuke izatea? Amestu dezagun pixka bat gehiago...

Pixka bat gehiago amesten jarrita... Anaitasun, ligako trofeoa altxatzen. Eta Anaitasuna beteta ikustea, berdez jantzita... hori nire ibilbide guztiari ginga jartzea litzateke. Ikaragarria.

Euskaldian Belarriprest ala Aho-bizi? Euskara maila hobetu duzu.

Ahobizi txapa jantzi dut. Gurasoak Jaendik etorri ziren, baina guri euskal kulturaren murgildu gintuzten, eta beti eskertuko diet. Alabekin euskara berreskuratu dut, eta oso pozik nago.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN.
Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 30

BAKAIKU Tailerra.

Emakumeendako ipar martxa tailerra.
Izena eman: kirolak@sakana-mank.eus edo 683 343 854 edo Bakaikuko
udala: 622 268 161.
17:00etatik 19:00etara,
udaletxean.

ALTSASU Gazte agenda.

Sexgunea sexualitate aholkularitza
zerbitzua.
17:30etik 20:30era, Intxostiapunta
gazte gunean.

IRURTZUN Liburu aurkezpena.

Josemi Albizuren *A la luz de las
antorchas* bigarren eleberriaren
aurkezpena.
19:00etan, kultur etxean.

LAKUNTZA Kontzertua.

San Saastin musika eskolako bateria
ikasleen emanaldia.
19:00etan, Sorginak tabernaren
aurrian.

ETXARRI ARANATZ Bertso saio
musikatua.

Tabuaren kutxatik oholtzara bertso
saio solidario musikatua, Iñurri
minbiziaren aurkako taldearen
eskutik.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Dantza ikuskizuna.

Altsasuko Musika eta Dantza
Eskolako 6 eta 14 urte bitarteko
euskal dantza eskolako dantzarien
ikasturte bukaerako dantza
emanaldia. Ikuskizunak bi atal izanen
ditu: Euskal Herriko dantza

tradizionalak eta euskal dantzetako
urratsetan oinarritutako hainbat
koreografia berri. Sarrerak: 1 euro.
19:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 31

ALTSASU Txirrindularitza
irteera.

Barranka Txirrindularitza Talde
mistoaren irteera: Lizarraga eta
Lubierri, 51 kilometro.
08:30ean, Zumalakarregi plazan.

LAKUNTZA Auzolana.

Hatortxu Rockerako prestatzeko
auzolana.
09:00etan, pinudian.

ETXARRI ARANATZ Mendi
irteera.

Larrañeta Mendi Taldearen irteera:
Azkentzale Eguna.
09:00etan, elkartetik.

IRURTZUN Munduko arrozak.

Munduko arrozak, Kulturen arteko III
elkartasun zikloaren barruan.
10:00etatik aurrera, plazan.

IRURTZUN Tailerra.

Emakumeendako indar tailerra.
Elebiz.
10:00etatik 12:00etara,
kiroldegian.

ALTSASU Mobilizazioa.

Ez Gasteiztik, ez Ezkiozik! AHTrik ezi!
mobilizazioa, Stop AHT zundaketak
deituta.
12:30ean, udaletxearen aurrean.

ARAKIL Txirrindularitza
proba.

62. Nafarroako Itzulia. Afizionatuen
mailako itzuliko hirugarren eta azken
etapa: Aldatz-Itxasperi, 153,2
kilometro.
13:44 Irurtzun, Ihabar,
Etxarri Aranatz.
14:22 Lizarragako gaina
15:57 Errotz, Ihabar.
16:18 Aralarko pista.
17:18 Amaiera,
Itxasperi.

IRURTZUN Txapelketa.

Futbolin txapelketa.
16:00etan, Larrazpin.



UTZITAKOA

ALTSASU Hainbat begirada, hainbat pertsona CEAREN erakusketa,
Ongi etorri pertsona migratuak eta errefuxiatuak Sakanara
ekimenaren barruan.
Maiatzaren 16tik ekainaren 15era. lortia kultur gunean.



ARTXIBOA

ALTSASU Koldo Arnanz Zufiaurren marrazketa eta margoketa
tailerrean 2024-2025 ikasturtean egindako lanen erakusketa.
Ekainaren 1era arte. lortia kultur guneko erakusketa aretoan.

ALTSASU Gazte agenda.

Paintballera irteera (25 euro).
16:15ean, Idertzagain kaleko bus
geltokian.

ALTSASU Kontzertua.

Trasteando eta Sacalfi taldeen eta
Andoni Saroberen kontzertua;
sustraietako melodiak, musika latinoa

eta erritmo, estilo eta genero
musikalen aniztasuna biltzen dituen
kontzertua. Sarrerak: 8 euro (azkenak).
19:30ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 1

LAKUNTZA Lasterketa.

Lakuntza-Aralar Mendi Lasterketa:
Luzea, 26 kilometro; motza, 13
kilometro, eta mendi lasterketa
(motzaren kontrako ibilbidea).
Nafarroako Rankingerako
puntuagarria eta Euskal Herriko linea
kopako puntuagarria. Zabalarte
klubak antolatuta.
08:30 Mendi martxaren irteera.
09:30 Lasterketaren irteera.

ALTSASU Txirrindularitza

ZINEMA

ALTSASU

ORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Las tortugas

Igandea 1 19:30
Astelehena 2 19:00

Una función inesperada
Osteguna 5 19:00

BAZKIDE ZOZKETA
Maiatzeko saridunak

Eguzki Nazabal Leiza
(Etxarri Aranatz)
Maite Zabala Duhau
(Olatzagutia)
Raul Audikana Arrese
(Olatzagutia)
Xabat Zabala Lizarraga
(Etxarri Aranatz)

Er **vit** **i** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

Azkartasun handiko zerbitzua

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK **Erakusketa Irurtzunen**

irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen BTT taldearen irteera: 28. Gurutzetako Zeharkaldia.
09:00etan, Zumalakarregi plazan.

LIZARRAGA Erromeria.

San Adrian saildua menditik jaitsiko dute.
10:00 Elkartu, auzoan.
13:00 Ongi etorria, parkearen ondoan.

ETXARRI ARANATZ

Urteurrena.

Kalaska Sakanako Hiltegiaren II. Urteurren ekitaldia.
Kalaskan.

11:00 Ekitaldi ofiziala (elebiz).

11:30 Bisita gidatua (elebiz).

12:00 Kalejira hiltegi zaharrera. Ibilbidean zehar geldialdiak historia ezagutzeko; bertsolariak, trikitilariak, ardoa...

13:00 Auzatea OKM produktuekin, plazan.

ETXARRI ARANATZ

Dantzari Txiki eguna.

Dantzari Txiki Eguna, Etorkizuna dantza taldeak eta Etxarri Aranazko Udalak antolatuta. Eguraldi txarrarekin, frontoian.

11:00 Dantzariak eta musikariak elkartu eta hamaiketako, plazan.

12:00 Kalejira.

13:30 Dantza emanaldia, plazan.

URDIAIN Eguna.

Sakanako XXV. Herri Kirolen eguna. Antolatzaila: Sakanako Mankomunitatea; laguntzaileak: Urdiango Udala, Nafarroako Gobernua, Sakanako herri kirolariak.
12:00etan, plazan.

ASTELEHENA 2

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

URDIAIN Hitzaldia.

Uda heldu da eta... Nola lagundu seme-alabei euskara gehiagotan hitz egin dezaten? hitzaldia, Ebete elkarteko Maddalen Aristegiren eskutik. Sakanako Mankomunitateak antolatuta. Izena ematea: euskara1@sakana-mank.eus.
18:00etan, auzoan.

OSTEGUNA 5

UHARTE ARAKIL

Kontzertua.

Lakuntzako San Saastin musika eskolako tronpetak ikasleen kontzertua.
18:00etan, udaletxean.

OSTIRALA 6

ALTSASU Jai batzordeko festa txikiak.

18:00 Hitzaldia: Musika gaur egungo jai eremuan, Gure Etxean.

20:00 Pintxo potea eta pankarta erakusketa, Gure Etxetik Gaztetxera.

22:00 Afaria, gaztetxean (aldez aurretik erreserbatu).

23:00 Itzal Magoaren magia ikuskizuna, Gaztetxean.

ALTSASU Dantza ikuskizuna.

Lanabesak ofiziotik dantzara... Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako euskal dantza eskolako dantzarien ikuskizuna. XX. mendearen hasieran Euskal Herriko herri baten eguneroko bizimoduaren oinarrituta. Sarrerak: 1 euro.
19:00etan, Iortia kultur gunean.

ESKELA



Aitor Mariñelarena Mañeru

'Bonbo'

"Kantatu nahi dut bizitza usteltzen ez bazait hitza mundua dantzan jarriko nuke jainkoa banintza" Musu haundi bet Betiko gukin

Zu kintuek

IRAGARKI SAILKATUAK

SALGAI

Fermin Muguruzak ekainaren 14an Anoeta futbol zelaian emango duen kontzerturako hiru sarrera salgai: Kontak-turako telefonoa 618 096 204.

LANA/NEGOZIOAK

ERRENTAN EMAN

Urdiango igerilekuak udaran kudeatzeko edota Aitziber elkartea udako jaietan alokatze-ko interesa baduzu: kontaktuan jarri aitziber-elkartea@gmail.com emailera idatziz, informazio gehiago jasotzeko, ekainaren 6a baino lehen.

Lakuntzako pisinetako taberna alokatu nahi duenak: www.lakuntza.eus webgunean edota udaletxean informazio osagarria du eskuragai eskaintza aurkeztu ahal izateko.

LAN ESKAINTZA

Lakuntzako Udalak igerilekuetan lan egiteko lan eskaintzak: Nafar Lansare bidez publikatu ditu.

LEHIAKETAK

Altsasuko festetako kartel lehiaketa: Feste-tako programaren azala eta kontrazala izango diren kartelak aukeratzeko, parte hartzeko oinarriak eta informazio gehiago www.altsasu.net web orrian, iortiakultura@altsasu.net emailera idatziz edota 948 564 272 telefonora deituz.

Irurtzango jaietako herri kartel lehiaketa: Jaien egitarauaren azala

izango da kartel irabazlea, haur eta helduen kategoriak daude eta sariak egonen dira. Informazio gehiago eta oinarriak www.irurtzun.eus web orrian.

IKASTAROKAK

Elikadura eta ariketa fisikoa menopausian: Hitzaldi sorta antolatu du Mank-eko kirol zerbitzuak ekainaren 13an eta 20an. Izen ematea eta informazio gehiago kirolak@sakana-mank.eus eta berdintasuna@sakana-mank.eus emailletara idatziz.

Sakanako bertso eskolak: LH4tik DBH4ko gazteei zuzenduta Altsasu, Irurtzun eta Lakuntzan. Informazioa eta izen emateak www.bertsozale.eus nafarroa, nafarroa.transmisioa@bertsozale.eus edota 948 143 747 telefonon.

OHARRAK

Arbizuko Udalak udako tailerretan izena emateko epea zabaldu du: Informazio gehiago Udaletxean edo www.arbizu.eus web orrian.

Uharte Arakilen haurrendako udako aisialdi programan izena emateko epea zabalik: Udako Euskaraz oporretako euskararen arnasgunea eskaintza prestatu du. Informazioa udaletxean.

Sakanako mintzakide taldeak: Ziordian ostirale-tan 17:00etan liburutegian, Olaztin astelehene-tan 18:30ean Ogiherri-n, Altsasun astelehene-tan 16:00etan Gautxorin,

ostegunetan 20:00etan Lezean (Altsuko eskua) eta ostirale-tan 9:00etan Kaixon eta 10:00etan Zubezia elkartean, Etxarri Aranatzeko ostirale-tan 18:30ean Xapateron, Arbizon astear-tan 16:00etan Aralar taber-nan, Lakuntzan asteaz-kenetan 18:15ean jubila-tuen elkartean eta Irur-tzunen astartetan 18:00etan Iratxon eta ostirale-tan 9:45ean edo-ta 19:00etan Pikuxarren.

JALGI HADI! dokumen-talerako crowdfunding kanpaina abiatu dugu AEK-Korrikak eta Miro-kutana ekoiztetxeak: Euskara maite duen edo-norentzat ari dira doku-mentala egiten. Euskara bizirik ikusi nahi baduzu, egin klik <https://eu.goteo.org/project/jalgi-hadi-dokumentala> eta lagundu crowdfunding bitartez! Poltsiko guztietarako mo-duko diru ekarpenak egin daitezke, 20 eurotik hasi-ta. Martxoaren 17tik apirilaren 25era bitartean eman dezakezu laguntza. Zure laguntzaz, hau po-sible izango da!

Etxarri Aranazko Udalak herriko entitateei zu-zendutako dirulagun-tzen deialdia egin du: kultur, kirol eta jendarte entitateei dirulaguntzak emateko deialdia zabaldu du. Informazio gehiago www.etxarriaranatz.eus web orrian.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburra.eus

ESKELA

Aitor Mariñelarena Mañeru

'Bonbo'

Euskal herri libre ta sozialista batien ikusko geittuk



Jardun

OROIGARRIA

"Aita beti gu biyotzetan"

Gorriko Berastegi familia
1975-5-24



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo.eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.



IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

Emozioen errusiar mendia den bertso saioa

Iñurri elkartearen 'Tabuen kutxatik oholtzara' bertso saio musikatua izanen da gaur, maiatzak 30, Etxarri Aranazko kultur etxean. Lau emakume bertsolarik minbiziaren tabuei aurre egingo diete, "negar eta barre" egiteko den saio batean

Eneida C. M. eta E. R. B. ETXARRI A.

"Bizi behar den esperientzia bat da. Dragon Khan bat bezala dela esaten dugu; errusiar mendi bat. Negar egiteko, barre egiteko..." *Tabuen kutxatik oholtzara* bertso saio musikatu solidarioaren Julene Illarramendiren deskribapena da. Illarramendi Iñurri elkartearen sortzaileetako bat da, Miren Cuerdorekin batera, eta bertso saioa maiatzak 30, ostirala, 19:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean izanen da Alaia Martin, Ekhiñe Zapiain, Maddi Ane Txoperena eta Oihana Iguaran bertsolariekin; gai jartzailea Amaia Agirre izanen da (sarrerak 6 eurotan eros daitezke).

Iñurri elkartea

Iñurri elkarteak "minbiziaren ikuspegi feminista, eraldatzailerik eta transformatzaile bat" ematen duen elkartea dela azaldu du Illarramendik. Bere ama minbizi metastasikoarekin hil zen duela zazpi urte, minbizia hamar urtez izan ondoren: "Ni harrapatu ninduen hamar urte neuzkanetik hogeitaz neuzkanera". "Tribu baten beharra" nabaritu zuen, "momentuan ez nekien zer behar nuen, baina galduta sentitu nintzen". Ama hil eta bi urte-tara Instagram kontua sortu zuen "pixka bat istorioa kontatzeko" eta Miren Cuerdak, herrikidea, batu zitzaion. "Nahigabeen hasi ginen, ez genekielako zer bide hartu, baina poliki-poliki oraingo Iñurri sortu genuen". Batez ere elkarteak akonpainamendua egiten du, "minbizia duten pertsona oro, baita minbiziaren inguruan ari diren guztiak ere".

"Elkarte txikia da, orain ez hain txikia, baina gertukoak gara; benetako akonpainamendua egiten dugu". Minbizia duen pertsona batek laguntza behar duenean daude. "Kamisetak



'Tabuen kutxatik oholtzara' bertso saio musikatu solidarioa. UTZITAKOA

"MOMENTU BATEAN NEGARREZ ZAUDE ETA HAMAR SEGUNDOTARA BARREZ"

atera ditugu eta 'Ez badakizu zer esan ekarri kroketak' diote". Bestetik, tabuak "hautsi" eta dibulgazio lana ere egiten du elkarteak. "Batuetan gaizki jokatzeko dugu ez dakigulako nola jokatu ondo. Gauzak ezkutatatu dira, eta guk erakusten ditugu: bularrak, gorputz desberdinak... Iruditzen zaigu minbiziaren iruditegia oso markatua dagoela, eta beti ez da horrela". Nola jokatu edo "behintzat" haien ikuspuntua ematen dute.

Osasun publikoaren aldeko lana da elkartearen beste mugarririk bat: "Inbertsioa eskatzea; inbertsioak bizitza salba dezake, eta hor gaude gauzak hobetu daitezkeela esaten". Tratamenduak badira, baina jaioterriaren edo bizilekuaren arabera "desberdina" izan daitezkeela azaldu du Illarramendik:

"Tratamendu integrala behar dute; mundu guztiarentzat eskuragarria dena. Horrekin ere borrokan gaude".

Sentitu beharra

Tabuen kutxatik oholtzara bertso saio musikatu solidarioa "benetan sentitu behar" dela esan du Illarramendik: "Amaia Agirre da gai jartzailea, baina berarekin batera gaiak minbizia duten pertsonen jartzen dituzte. Orduan, badauka berezitasuna". Proiektuak berak bularreko minbizia, ahotsa eta hitza, feminismoa, bertsolaritza eta umore berriak lantzen ditu. "Momentu batean negarrez zaude eta hamar segundotara barrez. Marabillak egiten dituzte hitzekin". Musikatua ere bada, Araitx Bizkaik eta Oihana Landa musikariek jartzen dute musika, "eta oso goxoa da".

Emozioz betetako saio bat izango da. "Errealitate bat ere, hankak lurrean jartzeko modu bat". Illarramendik bertsolarien "ausardia" eskertu du ere, "gai askorekiko ikuspuntua ematen dute". Gozatzeko egun bat izango dela gaineratu du.



BAZTERRETIK

ALTSASUKO
LIBURUTEGI PUBLIKOA

Irakurketa proposamen hauekin gatz

HELDUENDAKO, nobela:

Zoriona edo antzeko zerbait / Karmele Mitxelena

Mediterraneoara etorri da emakume alargundu berria. Doluaren zamak atzean utzi nahi lituzke, itsaso bareago honetako ur urdinetan jostatu. Bizitzari berriz egin irribarre, bizitza berri bati esan ongi etorri.

Protagonista bera da kontatzailea, eta idazkera dotore bezain biziz, pausatu bezain adierazkorrez doa kontatzen gogoaren zirrikituetan gordetzen dituenak, baita bere egunerokoan gertatzen zaizkionak ere.

Bidaia fisiko eta psikologiko bat dakarkigu eleberri labur eta hunkigarri honek, betiko gai giltzarrietan pausalekuak eginez: maitasuna, heriotza, seme-alabak... mundu honetako gure igarotzeari zentzua ematen diotenak.

GAZTEENDAKO -

HELDUENDAKO, Komikia:

Ihes plana / Agustín Ferrer

1936. urtea, Madril hesitua izateko arriskuan dago, eta

gobernu errepublikarrak Valentzia hirira joatea erabaki du. Hiriburuaren aurkako bonbardaketek gobernu neurriak hartzera behartu dute eta, besteak beste, Pradoko Museoko artelanak handik ateratzera, arriskuan dagoen ondare historiko eta artistikoa salbatzeko. Kamioi-taldeek Valentziara eramango dituzte artelanak eta, han, zaharberritu eta babestu egingo dituzte, aldi baterako, bederen.

Pradoko Museotik ebakuatutako koadroen artean Mona Lisa dago, Leonardo da Vinciren tailerrak egindako Giocondaren bertsioetako bat. Hura lortzea eta arte-merkatari bati saltzea zaila da, baina ez ezinezkoa.

HAURRENDAKO -
GAZTEENDAKO -
HELDUENDAKO, album
ilustratua: Kulero zulatuen

mamua / Jose Carlos Andrés; irudiak, Gomez KULERO ZULATUEN MAMUUUA NAIZ!

Ametsgaiztoenean bizilagunek ezin dute lasai lo egin, kulero zulatuen mamuak etengabe izutzen baititu. Egoera honekin amaitzeko bere gaztelura joango dira Gari Boligorri, Jare Suhiltzaile eta beste hainbat... baina denek ihes egiten dute, izututa. Nola lortuko dute kulero zulatuen mamuari aurre egitea?



UTZITAKOA

Elai Alai dantzarien eguna

Maiatzaren 24an, larunbatean, Lakuntzako Elai Alai dantza taldearen eguna ospatu zuten. Eguerdia aldera dantzariak kalera atera ziren eta herritik desfilea egin zuten. Ondoren, dantzaldia egin zuten. Bazkaldu ondoren, hurrendako jolasak, musika eta buruhandiak izan ziren, eta amaitzeko zezensuzkoa. Euskaraldiaren ekimenekin bat egin zuen egunak.

Euskal rock eszenan toki bat

Hiriberriko kontzeju etxeko biltegian sortu dute Alain Azkona arakildarrak eta Aitor Martinez etxauriarrak Hartzak Zeruan taldea. 1990eko hamarkadako rock "garageroa, grunge, alternatiboa" oinarri dute. Sei abestiz osatutako Bidea EPa kaleratu dute

Erkuden Ruiz Barroso HIRIBERRI A.

"Nafar rock powerduo" bezala deskribatzen dute Alain Azkonak eta Aitor Martinezek Hartzak Zeruan musika proiektua; "kaña eman eta energia transmititu nahian" bi kidez osatutako rock talde bat da. Hiriberri Arakilgo kontzejuko "biltegian" elkartzen hasi ziren 2024ko udan, eta dagoeneko sei abestiz osatutako EPa kaleratu dute: *Bidean*, baita *Gal(d)era* bideoklipa ere.

Hartzak Zeruan "intentsitate berdinean gauden bi pertsona disfrutatzeke irteera toki bat aurkitzea" helburu duen taldea dela esan du Martinezek. Etxauriarrak ahotsa eta gitarra jotzen ditu. "Energia gordina eta grina" aipatu ditu Azkonak, taldeko bateriari jole eta ahotsak. Bi kidez osatuta dagoenez, izen "luzea" nahi zuten, "gu bion lotura adierazten duena"; hartz handia eta hartz txikia konstelazioetatik dator.

Talde sortzeko historia "luzea" dela esan du hiriberriarrak. Aurretik beste taldetan ibiltzen ziren: "Nire lehengusuagatik elkar ezagutzen genuen. Ni Anfora Hiriberriko taldean nengoen eta Aitor beste batean zegoen, eta elkarrekin jo genuen". Taldeak "beti ez dira errazak" esan du Martinezek, "aurreko taldean gorabehera asko zeuden eta azkenean bateria joan zen, eta Alain fitxatuta geneukan". Gasteizen jo behar zuten kontzertu bat baino aste bat lehenago hasi zen Azkona taldean, "aste batean abestiak ikasi zituen; pixka bat kaotikoa izan zen". Talde hori amaitu zenean, gitarra jolea "gogotsu" zegoen, baita Azkona ere, eta hasieran ez zekitela zer egin aipatu dute; "intentsitate horretan" taldea aurrera eramatea erabaki zuten arte. Azkona: "Zerbait sortu eta gero ikusiko genuke". Bi kide izaten "oso gustura" daudela gai-



Alain Azkona eta Aitor Martinez Hartzak Zeruan taldeko kideak. UTZITAKOA

neratu du Martinezek, "kudeatzeko erraza da", nahiz eta bere gauza "onak eta txarrak" dituen.

"Nire kasuan bertsioak egiten genituen, rock bertsioak gehienbat; pop pixka bat ere sartzen genuen", azaldu du Azkonak. Martinezen aurreko taldeak "eboluzioa" izan zuen: "Hasieran Des-Kontrola eta euskal punk rocka egiten genuen". Musikariaren eboluzioan "beste gauza bat" egin zitekeela ikusi zuen, eta "beste soinu bat" bilatzen hasi zen, "garageroagoa, rockeroagoa... melodia desberdin horietara iristea, berria". Bilaketa horrek Hartzak Zeruan egiten duen musikara eraman zuen, "erosoen nagoen musika honetara".

Rock

Musika estiloaren aldetik etiketa bat ez dutela pentsatu esan du Azkonak, baina rocka dela determinatu dute. Martinez: "Rocka da; alternatiboa, grunge ukitu batekin, garageroa... Ez dugu ezer asmatu, ez dugu magiarik egin edo ez gara ezer berria sortzen ari". Rockaren barruan kokatzen dira, eta garatzeko prest daude. "Lerrokatu gabe, ez dugu beti berdina egin nahi", gaineratu du Azkonak. Abesti bat "elektronikoagoa" dutela esan du. Hortaz, oinarria 1990eko hamarkadako rocka da, baina ez diote beste estiloei ateak ixten.

Rock taldeak, orokorrean, talde handiak izaten dira; hiru kideetik gorakoak, batez ere gitarra, baxua eta bateria izaten dituztelako. Nola egiten du Hartzak Zeruan bi kide izanda? "Diskoa bakoitzak bere aldetik grabatu du, eta gitarrarekin trukoak egiten ditu Aitorrek". Martinezek azaldu duenez riff oinarri bat egiten du, hori probatzen dute, eta nola garatu daitekeen begiratzen dute, "akorde progresio bat da". Detailtxoei arreta jartzen dietela esan dute, "hori bai, detaileak gustatzen zaizkigu". Helburua ez aspertzea da; "soinu aldetik konplikatzen hasi ginen, gero sinplera bueltatu gara...". Biek protagonismo berdina dute.

Maiatzaren hasieran lehenengo singlea kaleratu zuten, *Gal(d)era*, eta harekin batera bideoklipa. Beñat Goia da zuzendaria, eta taldearen "energia eta estetika" erakusten du lanak. Maiatzaren amaieran *Bidean* Hartzak Zeruan taldearen lehenengo EPa kaleratu dute; sei abestiz osatuta dago eta Motu estudioan grabatu dute.

"Soinu bidaia" bat dela esan dute taldeko kideek. Letrak "ilunak eta introspektiboak" direla esan dute, baita edertasun "gordin eta zintzoa" dutela ere. Hainbat gai jorratzen dituzte, besteak beste, giza harremanak, alienazioa eta egonezin existentziala.

"Izugarri hunkituta gaude azkenean gure musika munduarekin partekatzeagatik" esan du Azkonak. Lanak "pasio eta lan gogor askoren" emaitza direla gaineratu dute, eta jendeak abestiek "konektatzea" espero dute.

Bidea

"Azkar eta mantso ari gara, bi gauza batera", azaldu du Martinezek; "gure bidea azkarra izan da, ea nola doan gauza". Ideiak aurreko taldetik ekarri bazituen ere, "lehenengo pausoak" ematen ari dira orain; gelditu gabe. "Momentuz" hiru zuzeneko eman dituzte; lehenengo entsegu "irekia" izan zen, Hiriberri Arakilen, Etxauriko festetan jo zuten eta Bilborocken, Villasound 2025 lehiaketaren barruan. Azkona: "Handia izan zen, esperientzia polita, flipatzen geunden; tokia izugarria, kamerinoarekin...". Egoeragatik pixka bat "urduri" zeudela esan du Martinezek, "musikaren munduko jende asko zegoen ikusten, lehiaketa bat zen...". Gogotsu atera ziren.

Villasound 2025 lehiaketan finalista izan ziren, eta zenbait lehiaketa gehiagotan parte hartu dute ere: Herri Urratseko maketa lehiaketan finalista izan ziren eta Gazteako maketa lehiaketan aurrefinalistak. Gasteizko Txosnetako lehiaketan ere parte hartu dute.

Zuzenekoetan taldearen energia "gordina" erakusten dute. Udara begira hiru kontzertu aurreikusten dituzte, horietako bat Urdiaingo festa txikietan, abuztuan. "Baikor jarrita, Euskal Herriko rock eszenan tokitxo bat egin nahi dugu", esan du Martinezek, "eszena horretan sartzea". Batez ere disfrutatzea da Hartzak Zeruan taldekideen helburua. "Muturra sartzea, presiorik gabe, ateratzen dena ateratzen dela", gaineratu du Azkonak.

**"ROCKA DA;
ALTERNATIBOA,
GRUNGE,
GARAGEROA...
LERROKATU GABE"**



Noketaren iturriari eusten diote Mila Berastegi Razkinek eta Ino Araña Iriartek.

"Noketak konfiantza eta gertutasuna ematen ditu"

Euskaraldiaren barruan denetariko ekintzak izan dira Sakanan barna. Hitanoari buruzko saioa egin zuten Arbizun. Han izan ziren Ino Araña Iriarte eta Mila Berastegi Razkin, eta sortutako kezka eta proposamenez aritu zaizkigu

A.A.I. ARBIZU

1 Euskaraz hizketatzeko modu horri nola hots egiten diozue Arbizun?

Ino. Neskatoekin egiteko, noke-tan, eta mutikoekin, hiketan.

2 Hitanoari buruzko saioa behar zen?

Mila. Bai. Gure belaunaldiko jendeak egiten du, baina gazteagoak oso gutxi erabiltzen dute,

neskatoak gehienbat, mutikoak gehixeago. Kezka edo interesa daukate, eta saio bat egitea pentsatu zen.

3 Zeinek parte hartu zuen?

I. Nahi zuenak parte har zakeen. Adin guztietako jendeak parte hartu genuen. Denak neskak izan ginen, mutilik ez, topaketan bertan aipatu genuen. Hiketak eta noketak herrian duten erabileraren balorazioa

egin zen. Oso ongi egon zen, herrian dugunaz pixka bat hausnartzeko.

4 Topaketan zuen artean nola hizketatu zineten?

M. Lehenengo hausnartu genuen zergatik bai eta zergatik ez, edo zergatik ari den galtzen. Bakoi-tzak bere iritzia bota zuen. Emakumezko gazteek komentatu zuten gizonezkoen artean hitz egiten dutela, baina ez dute be-

reizten emakumezkoa edo gizonezkoa izan. Guk bai. Neskatoak oso gutxi hitz egiten dute eta interesa dute noketan aritzeko. Praktikatzeko edo hasteko elkartuko ginatekeela gelditu ginen. Whatsapp talde bat sortu zen tarteka gelditu ahal izateko, pote bat hartzeko, ibilbide bategiteko... **I.** Gazteak interesa badute, interesgarria litzateke denok noiz-behinka elkartzea eta hainbat jarduera egin. Ea praktikan jartzen dugun esandakoa.

5 Zuek nola ikasi zenuten?

M. Etxean. Topaketan aztertu genuen gauzetako bat izan zen zergatik familiako edo kuadrillako kide batzuekin noketan egiten dugun eta beste batzuekin ez. Gu bost gara eta gure artean beti noketan hitz egin izan dugu, zaharrenak gazteenari eta gazteenak zaharrenari izan ezik.

I. Nik ere etxean. Anaiarekin, ahizpekin eta lagun batzuekin harremana hiketan da. Gutxi batzuk garenez, interesgarria litzateke mantentzea, ez galtzea.

6 Arbizutik kanpo erabiltzen duzue?

M. Ez. Pertsona batzuekin modu batera hitz egiteko ohitura hartzen duzu, eta horretan segitzen duzu. Ezagun berriekin zuketan aritzen naiz.

I. Gauza bera. Ohitura kontua da. Txikitatik pertsona batzuekin hiketan egitera ohitzen zara. Eta beste pertsona batzuekin zuketan identifikatzen zara.

7 Jendeak zuek bezala ikasi du?

M. Uste dut baietz.

8 Gizonezkoen erabilera zergatik da handiagoa?

M. Gurasoei zuketan egin izan diegu, noketan inoiz ez. Beraiek guri bai, baina guk haiei ez. Estatus bat zen, errespetua, zaharragoak zirelako edo dena delakoagatik. Mutilen artean askoz indar gehiago dauka hiketan hitz egiteak. Azken batean, gertutasuna da hiketan hori. Emakumezkoak leunagoak, suabeagoak izan behar dira, ez dakit zer hitz erabili. Baina neska gazteek eskatzen dute, ikasi nahi dute.

I. Gazteek esan zuten beraien kuadrillan mutilek hiketan egiten zutela baina nesketara hurbiltzen zirenean ez zekitela beraiekin noketan egiten. Hor nolabaiteko hutsune batzuk dituzte. Prozesua martxan jarriko da eta ea hau guztia aurrera eramaten den eta posible den pixka bat indartzea.

9 Gazte eta helduen artean alde-rik?

I. Gure kuadrillan zuketan egiten dugu, baina gazteagoa den ahizparen kuadrillan hiketan egiten dute dena. Ohitura kontua da, hiketan hasten bazara, horrela jarraitzen duzu.

M. Bitxiene da 19-20 urteko neskek interesa dutela.

I. Esan genien deklinazioez ahazteko eta, batez ere, erabiltzeko.

10 Zer ematen dizue hiketan hitz egiteak?

M. Konfiantza eta gertutasuna. **I.** Hurbiltasuna ematen du.

11 Hurrengo Euskaraldian hikaldia Arbizun?

I. Interesa badago. Ea posible den hori guztia gauzatzea.

M. Lehenengo pausoa emana dago: taldea sortu da.

ZURE PROIEKTUA GARATZEKO LAGUNTZARIK BEHAR AL DUZU?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA



619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu

